



Sagastilerri

URRUZUNO literatur lehiaketa



1996

P R O S A

ANA MALAGON

IKER YURREBASO

ANE LARRAÑAGA

GARAZI GOIA

NAIARA OLASKOAGA

MIREN SALABERRIA

UXUE APAOLAZA

MADDI GARMENDIA

ALEXANDER GARCIA


JURGI OLAIZOLA

Eibarko Herkuntaren Esparrua
943.20 27.43
20800 EIBAR

irakaskuntza ertainetako
URRUZUNO

literatur lehiaketa 1996

LAN SARITUEN BILDUMA



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 1996

Argitaraldia: 1.a, 1996ko uztaila
Ale kopurua: 2.600

© Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Azala: Jesus Iturriza

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Wellingtongo dukea, 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Bto. Tomás de Zumárraga, 66 - 0100 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Grafo, S.A.
Cervantes etorbidea, 51 - 48970 Basauri

I.S.B.N.: 84-457-1086-9

Lege gordailua: BI-1562-96

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	7
-------------------------	---

Ezkutuko en alde. <i>Joxemari Iturraldere</i> en aitzi solasa	11
--	----

Prosa: A maila

Beti mugan, zerbait ulertu nahian..	<i>Ana Malagón Zaldua</i>	19
Benta ilunetan da nire gogoa	<i>Iker Yurrebaso Pikaza</i>	29
Alaba galdua	<i>Ane Larrañaga Ormazabal</i>	39
Amodioaren pasioa	<i>Garazi Goia Imaz</i>	49
Zoriona, maitasuna	<i>Naiara Olaskoaga Bereziartua</i> ..	55

Prosa: B maila

Hogei hilotz.....	<i>Miren Salaberria Eguzkiza</i>	65
Azken bost minutuak	<i>Uxue Apaolaza Larrea</i>	77
Bakarrik	<i>Maddi Garmendia Irizar</i>	87
Fraileen arteko kontuak	<i>Alexander García Aretxabaleta</i> ..	93
Gaztelua	<i>Jurgi Olaizola Gabirondo</i>	103

Poesia: A maila

Denboraren denbora	<i>Leire Bilbao Barruetabeña</i>	117
Aztiaren eskuetan	<i>Olatz Aranguren Juaristi</i>	125
Aitonaren heriotza.....	<i>Lierni Asurabarrena Zipitria</i>	137
Itsastar baten gogoetak	<i>Amaia Bizkarguenaga Jugo</i>	145
Zure zain	<i>Leire Aurrekoetxea Arkotxa</i>	153
Farolpeko itxoitea	<i>Leire Bilbao Barruetabeña</i>	161

Poesia: B maila

Jaiotza bat	<i>Mikel Ayllón Corral</i>	171
The beautiful life of drugs; very-very beautiful life	<i>Mónica Estévez Fernández</i>	181
Garaiak	<i>Mikel Ayllón Corral</i>	187
Beltza ez delako hain beltz eta zuria ilunago	<i>Amaia Artolazabal Amilleta</i>	195
Horixe bakarrik	<i>Matxalen Zabaljauregi</i> <i>Markuerkiaga</i>	203
Desgaraiko olerki zentzugabe solteak.....	<i>Mikel Ayllón Corral</i>	213
Bakardadearen itzaletan	<i>Unai Villena Camarero</i>	219

Urruzunotarrak		229
-----------------------------	--	-----

HITZAURREA

Urruzuno literatur lehiaketak hamaika urte egin ditu 1996ko edizioan. Lehiaketaren inguruan gabiltzanok poz-pozik ikusten ditugu, urtea joan eta urtea etorri, bertara aurkezteko ahalegina egiten duten idazle gazteen emaitzak, urterik urte hobetzen doazenak.

Iaz hasita, *Sagastiberri* sailean argitaratzen dira emaitza horien artean epaimahaiak onen jo dituenak. Aurten hauek jardun dira epaile lanetan:

Juan Kruz Igerabide
Joxemari Iturralde
Anjel Lertxundi
Lurdes Otaegi
Joxe Mari Satrustegi

Parte hartze datuei dagokienean, honatx: Irakasmila Ertainetan diharduten 509 gaztek bidali dute bere lana: A mailan 161 prosan eta 74 poesian; B mailan 226 hitz lauz eta 48 olerkian.

Lehiaketak dituen 20 sariak bosnaka banatzen dira, parte-hartze kopuruak azaltzerakoan aipatu diren bi arlo eta mailetan. Poesia arloko A mailan, Ondarroako Leire

Bilbao Barruetabeñak saria eta aipamena irabazi ditu. Poesia arloko B mailan, Laudioko Mikel Ayllón Corral bi sari eta aipamenaren jabe egin da. Lanak maila eta arloka daude sailkatuta liburuan. Maila-arlo bakoitzaren barruan, berriz, epaimahaiak emandako lehentasun ordenan, iaz hasitako moldeari jarraiki. Aurkibidean arlo bakoitzaren azkenean, tarte baten ondoren, agertzen direnek aipamena jaso dute.

Hona irabazle bakoitzari dagokion saria:

- Irailean 10 egun inguruko bidaia Europa aldera.
- Bidaia horretako norbere gastuetarako laguntza: 40.000 pezetako bidai poltsa.
- Oroigarria. Iraileko sari banaketan ematen zaie.
- Lanak *Sagastiberri* sailean argitaratzea. Liburua eskola denetara eta parte hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Egindako ahaleginen ezagutza koxkor bat egin nahirik, bi ikastetxeri egiten zaie, urtero, aipamena: aurten Ondarroako batxilergo institutuari eta Pasaiako Pasaia-Lezo lizeoari. Aipamen horrek irabazleekin batera bidaiari joateko eskubidea ematen dio ikastetxe horietako irakasle banari.

Liburuaren azkenean azaltzen den *Urruzunotarren zerrendak* 1986tik 1996ra bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen araberrako alfabeto ordenan eta, lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan eta zein orrialdetan argitaratu ziren azalduz, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Zorionik beroenak sari eta aipamen irabazleoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztioi, epaimahaikooi

eta, bereziki, ondoko aitzin solasa prantatu duen Joxemari Iturraldi.

Eta zuri, irakurle, urterokoa: on egin dagizula.

Euskara Zerbitzua

EZKUTUKOEN ALDE

Joxe Mari Iturraldere
aitzin solasa

Lehenengo eta behin –*Urruzuno* literatur lehiaketa dela eta– zorionik beroenak eman behar aurtengo deialdi honetan irabazle suertatu diren guztiei. Zoriondu beharrean gaude beraz, honelaxe sentitzen dugulako eta halaxe eskatzen baitu kortesiak eta gizalegeak, liburu hau osatu duten idazle guztiak. Zenbait irakurle zaletuk –epaimahai-ko lanetan aritu garenok– idazle berri gazte horien lanak aukeratu ditu eta beste sarien artean, aukera izango dute oraingoan, bata bestearen atzetik jarrita liburu berri bat sortu eta kalera nola ateratzen den, untzitxo amaitu berri bailitzan, egiaztatzeko. Egia esan, ez da sari txikia irakurri eta idaztea gustatzen zaion inorentzat. Eta sari gisan baita ere, irakurleek liburu horretan azalduko diren lanak (ipuinak, poemak, bertsoak) dastatzeko mugona izango dute hemendik aurrera. Zoriondurik gera bitez, beraz, irabazle hauek.

Gaur ordea nik, hitzaurre gisara, beste idazleei buruz hitz egin nahi nuke. Fokuak gutxi batzuen, gaurkoan sari-tu eta irabazle suertatu diren aurpegien bila ari diren bitartean niri, gaurko honetan, argi distiratsu horietatik at geratu diren hainbeste eta hainbeste idazlez idaztea eta gorazarretxoa egitea bururatu zait. Bai, ezkutuan, ilunpean geratu diren idazleak aipatu behar ditut. Ez dira ez gutxi izan.

Afizioa badago, beraz, eta baita ofizioa ikasteko gogoare.

Esan bezala, oraingo honetan argi-fokuek ezkutuan utzi dituzte idazle dexente batzuk, ez bat eta ez bi. Askorentzat tristea izan bide da erabakia eta batentzat baino gehiagorentzat kezkarria ere bai akaso. Baina ez dago kezkatu beharrik. Ez horregatik behintzat. Egia baldin bada Denbora dela egilerik inportanteena, autorerik jakintsuena, gaurko honengatik ez gara kezkatzen hasiko. Hurrengo batean alderantziz izango baita erabakia, seguruena. Edota horrela ez bada ere, hurrengo batean ahaztuta egongo baita gaurko hau. Eta ahantzi ondoren nork har dezake gogoan?

Gaurkoan honetaz idatzi nahi dut zertxobait: nolabaiteko galtzaileez. Norbaitek halaxe senti baitezake, une batez sikiera, bere burua gaurkoan, ilunpetan bere oldozte eta gogoetekin bakarrik dagoen bitartean. Baina lasai dadi-la: literaturak berak atera eta sendatuko baitu berehalaxe bat-bateko goibeltasun horretatik, momentuko gaixotasun ez-larri honetatik.

Literaturgintza eta literaturzaletasuna bizitzeko modu bat da. Munduan egoteko eta leku bat izateko modua. Literatura ez da lehiaketa bat, ez du zer ikusirik lehiaketekin. Idazleak literatura egiten du, idazlea literaturatik bizi da: irakurriz bizi da gerora sortzeko, eta literatura sortuz bizi da, bera eta besteak biziarazten ditu literatura dela medio. Edozein idazlek daki hau guztia eta edozein irakurzaletuk errazki senti dezake nik esandako hau. Eta ez dago ezer gehiago esplikatzeko ibili beharrik.

Ernest Hemmingway-ek Icebergaren Teoria zuen gogoko idazlearen eta idaztearen ofizioa esplikatzeko.

Iceberg batean, itsaso gainetik, tontorra eta ezer gutxi gehiago antzeman daiteke, zazpirena besterik ez. Ezkutupean geratzen da ordea beste guztia. Hemmingway-ek zioen azaltzen ez denak duela indar gehien eta garrantzi handien idazterakoan, hots, iradokitzen dena, espreski adierazten ez dena dela benetan narrazio batean garrantzizkoa. Hau da, argien fokuetatik eta distiratik kanpo geratzen denak ere baduela pisua eta zeresana franko literaturaren munduan.

Liburu hau irakur dezanak jakin behar du hau aukera bat besterik ez dela, eta ez dela izan –onena agian, nork jakin; ez onena apika, nork esan seguru– eta Hemmingway-en Icebergaren Teoria aintzat hartuz, beste sei aukera (beste sei liburu) ezkutuan geratu direla eta, amaitzeko, balizko irakurle horri gomendatuko nioke –esku artean daukan liburu honekin gozatzeaz gain– saia dadila hor-hemenka aurkitzen datozen urteotan, ezkutupean gelditu diren idazle horiek eta sor ditzaketen lanak, balioko eta garrantzizko ere izan baitaitezke dudarik gabe.

PROSA. A maila

BBBko 3. kurtsoa, UBI,
LHko 2. gradua eta
IEEko 2. zikloa

**Beti mugan,
zerbait ulertu nahian**

Ana Malagón Zaldua
Sto. Tomas lizeoa
Donostia

"Konturatu al zara? Jaio ginenetik, amaren sabelean geundenetik, beti, gure bizitzaren instant estrainu bakoitzean, mugan egon izan gara. Bai zu, bai ni, bai inguratu gaituen oro. Urrutian entzuten ditugun haurren abestietatik, arrantzaleen begiradetara, mugan, beti mugan, geografia gure izpirituekin nahasten denean."

Zein mendetan jaio ginen jakingo banu behintzat, baina ez diot inoiz arreta gehiegirik jarri denborari. Ilusioz beteriko mundu batean bizi izan naizela uste dut, zuk zer diozu? Errealitatea nirekin zuzen portatu da, bai ala ez? Berdin zait. Zure izena edozein maitasun poemaren izenburu bilaka zitekeen, basamortuan entzuten den gitarra doinu tristea bezala, airean galtzeko arriskuan beti. Baina inoiz ez nigandik urruti, bada-ezpada ere. Greziatik etorria zinela esan zenuen guri bost axola zitzaigunean, mundu berri baten berri zenuela aitortu zenigun guk gurea bizi nahi genuenean, Jainkoren bat bazegoela aipatu zenigun gu erlijio guztia galtzeko asmoz otoitzean ari ginenean. Ilunabar batean Partenon-aren maila batean eseririk jakin omen zenuen ordurarte bizitakoak ez zuela inolako garrantzirik, ordurarte bizitakoa denboraren igarotze huts bat besterik ez zela izan. Honek aldatu zintuen, Amelia, honek

galdu zituen zure begi eztsuak Atenaseko zeruan maitatuko zintuen Zeus baten bila.

Ezezagun izango zitzaizun herrira itzuli zinen "jende arruntarekin berriz ere oheratzeko asmoz". Hondartzaren bukaeran nire betiko koadro aspergarriak margotzen aurkitu ninduzun, nire betiko okre eta berdeak, nire betiko itsaso urdina zeruarekin nahasiz. Norbaitek iraganeko pekatuak belarrira esatean bezala sentitu ginen biok, oroitzape-nek pisu handiegia zuten guretzat... bizitzaren mugan aurkitzen ginen, gizarte honek sortu duen populazio masatik at, gure bizitzetan zehar jarraitu gaituzten paranoietatik urruti. Zaharturik ikusi arren, beti maite izan zaitut, Amelia, nolabait aingeruen materiaz egina zeundelako eta nik beti izan dudalako aingeruekin obsesio berezi hori, hauetako bat izan nahi izan dudalako apika. Baina hemen mugan, inoiz, Lisboako kaleetan aingeru bat izatea amets egiten nuen nik.

Hurrengo egunean gauaren sinbolismoak izaturik esnatu nintzen. Nire ohean bakarrik, hotzez, dardarka, benetan hilik ala bizirik ote nengoen ezin jakinik. Bihoztaren taupadak gorputz osoan senti nitzakeen, zure izenaren poemarekin batera. Zu dagoeneko joana zinen, batek daki nora, behin gaua amaiturik gaueko izpirituen antzera argitasunetik ihesi. Sentimendu hari etiketa bat, kode bat, prezio bat jartzea zein ezinezkoa iruditu zitzaidan orduan.

Areto zikin hartan Bergman-en pelikula batean ikusi zintudan berriro. Herri honek jasan duen eraldakuntzarekin desagerturiko zineman eman genituen gure lehenengo muxuak, ukitu gure lehenengo izterrak, sartu gure lehenengo eskuak... ezezaguna, misteriotsua zitzaigun toki hartan. Handiak sentitzen ginen mutilak, praktetan bustiriko

heroiak iluntasunean sexuaren lehen urratsak emanaz. Erabiliak sentitzen zineten neskak, baina laztanekin disfrutatzen zuten objektuak zineten. Sexua inoiz erabat gauzatu gabe, beti mugan, amaierara iritsi ezinik. Neskaren zaplasteko perfumatuaren hipokresia usaindu genezakeen, gustura aurkitzen zelako bere hankartea gure esku urduri izerdientuen artean. Gizartearen konbentzionalismoek gainditurik, kristau fedean errefuxiatuz, zinematik atera eta etxera negarrez joan ohi zen bere borondatez zikindurik sentituz. Amelia, zu ez zinen inoiz horietarikoa izan. Kortesia eskatzen bazitzaizun, zure titiak ukitu genitzakeen. Formen zalea zinen orduan, ez baitzenuen sentimendu sakonetan denbora galtzeko asmorik. Harreman motz eta arinak.

Baina areto hartan zegoen Ameliak ez zuen zerikusirik. "Zergatik Bergman?" galdetu zenidan eta nik ez nuen erantzuten jakin. Elkarrekin ikusi genituen filme guztiak frantsesak izan ohi ziren, lentzeriaz josita, ezpain lodiko eta begirada errugabeko neskatila paristarrak agertzen zirelarik. Pelikula haien estetika gustatzen zitzaigun, etengabeko *c'est la vie* hori. Greziatik itzuli zinenean sofistikazio horiek guztiak alde batera utzi nahi izan zenituen eta nirekin bizitza bat hasi. Gelditzen zitzaizkigun urte gutxiak batera igaro genitzan eskatu zenidanean, aurretik bizitako guztiari zentzu bat topatu niola uste dut, edo behintzat gezur horrekin altxatu naiz goizero orduz geroztik. Zuretzat garrantzitsua izateari utzi nion Atenaseko kaleetan zehar, baina aldi berean behar ninduzun bizitza hain paradajikoa delako... Ez zinen zu ezagutu den pertsonarik berekoienetako bat izan? Aurriritzirik gabe entzuteko gai baina kapritxoz beteriko pelikuletako beste *femme fatale* bat. James Bond bera zoratzeko modukoa.

Denbora luzeegia igaro duzu hildako aingeruen hegoen bila negu gorriko hondartza txuri tristeetan, kostaldeak gure ametsak bustitzen zituela, olatuek errealitatetik ekartzten gintuztela guk ulertu ezin genitzakeen hondar fin eta leunetara. Zu Grezian zeunden bitartean, menditik erori zen ahots goxo batek erbesteraturiko poetak izendatzen zituen bata bestearen atzetik. Zure alaba zen, Anna. Haranetan barrena galdu zen haurra, pianoa jotzearekin amets egiten zuen neskaita, munduari so negar egiten zuten begiak. Denbora eskatuz otoitz egiten zuen irailleko ekaitzak iristen zirenean, barkuak olatu erroldoien artean desagertzen zirenean. Denbora eskatzen zuen itsasontzi horietako bat hartu eta mugatik urruti bizirik ihes egiteko, bere ama Grezian zegoen lekura. Amonaren ipuinak hobeto ikasi zituen zure postal zuri hutsak baino.

Anna mirari baten zain jaikitzen zen goizero, baina zerutik ez zen inoiz ezer jausten, ezta aingeruak ere. Zure alabak mendisketan zehar korrika egiten zuen gustuko ez zuen errealitate batetik ihesi. Beti ihesi. Hondartzara iristen zenean, aldi oro sentimendu berak bereganatzen zuen neskatzaren bihotza: libre izan nahi zuen iparraldeko haizea bezala. Urteen aurrera jotzearekin batera, sentimendu hori handitzen joan zen, bukaerarik gabeko espiral batean korapilatuz. Zure falta sentitzen ote zuen ez nuen inoiz jakin, berak ez zuelako bere amonarekin besterik hitz egiten. Itsasoarekin bakarrik egiten zuen berba, haizearekin, mendiekin, pertsonak hutsalegiak ginen berarentzat.

Ez zuen inoiz ulertu zure ama zoratu zuen eta zahartzaroak ekartzen duen gaisotasuna. Ispiluaren aurrean eseri eta biek isladari begiratzen zioten. Annak munduan bakarrik aurkitzen diren pertsona guztiengatik negar egiten zuen planeta unibertsoetik erori zen arratsalde hartan. Bere

amonak, falta zitzaion panpinarengatik. Ez, Annak ezin zuen ulertu honek bere bizitzan suposatzen zuena. Ez zuen heriotzaren esanahia konprenitu nahi izan bere gorputzean nabaritzea erabaki zuen arte. Arroka batetik bere ileek nola egiten zuten hegan ikusi eta nire aurrean zegoen koadroari gehitu nion guztia, kaio bat –beste bat anonimatoan– izan balitz bezala. Mugako herriska honetan behin eta berriro errepikatu den istorioa delako. Historian (eta bakoitzaren istorioan) errutina bat.

Zu Greziatik itzuli zinenean dagoeneko zure ama eta alaba udazkeneko ekaitzekin joanak ziren. Beranduegi irudititu zitzaizun damutzeko, eta hala zen, jadanik ezingo zenien urteetan zehar ukatu zenien maitasuna eman. Garairik samurrenak denboran urruti gelditzen direnean, batek atzera begiratu eta bere akatsak non aurkitzen diren ikusten saiatzen da. Aspaldiko gaztaroko gauetako amets basati hura galdu egin zen espazioan, izarren argipean jostatzeko erabiltzen zenuen gitarra txiki hura bezala. Esanahiak definizioetatik erori ziren eta pasiatzea besterik ez zitzaigun gelditzen. Gelditu, kafe triste baten hondarrak bezala katiluan bazterturik, ahazturik. Orain arte izan garenarekin eta izateari utzi diogunarekin zerikusirik ba al du honek? Gelditzen dena gu gara, leihoetatik kaioak hegan egiten ikusten ditugun agureak. Haurrek ulertu ezin dezaketen gaitz horrek jota, nahiz eta medikuek kontrakoa esan. Baina zer dakite medikuek zahartzaroari buruz? Ezer gutxi, oso erraza delako dena hirugarren edo bigarren pertsona singularrean hitz egitea, baina zer lehenengoan denean?

Filme osoa norbaitek zure izterra ukitzeko zain igaro zenuen, aretoaren iluntasunean. Haragiak dagoeneko utzi zion samurra izateari. Itsasoak bere ur garbiko ispiluan

zure zimurak agerian jarri zituen, denborak ekartzen dituen zimur kupidagabeak.

Eta batek gauza hauek gainditzea lortzen duenerako, betiko isildu behar du.

Inoiz baino sarriagotan ikusten zintudan elizan sartzen. Fede honek Fideas edo zure filosofo maiteekin harremanik ba al zuen? Edo bat-batean sartu zitzaizun kristautasunarenganako miresmena? Heriotzaren eguna iristen denean, batek gero eta gehiago behar du Jainko batengan sinestea, ezta? Hau amaiera ez dela ziurtatuko duen norbait hori gure bizilaguna izan zitekeen apaiz batengan ikusten dugu. Benetan bitxia da, fedeak nola banatzen duen bakoitzaren eginbeharra bizitza honetan adin hau iristen denean. Gure belaunaldikoa den gizon honek, bideak argituko ditu, gu, argituak izango gara. Desberdintasun handirik azkenean? Ez, baina oso ondo gelditzen da familiaren aurrean.

Amelia, ba al dakizu zer esan nahi duen Heriorekin xakean jokatzek? Irabaztekotan, bizitzeko egun bat gehiago da. Gogoratu honelako zerbaiten berri izan genuela Sueziatik noizbait. Egundakar bat nahi dudana egiteko, mendi gailurrera igo, biluztu eta dena pikutara bidaltzeko, egun bat mozkortu arte edateko, egun bat... beti maite izan zaitudala esateko, zu muxukatzeko hamabiak iritsi baino lehen. Aurretik egin bezala patuari desafio egiteko beharrik ez oraingoan, ez baitago paturik behin hau nolakoa izango den ezagutzen denean, ez du misteriorik, ez inolako erakargarritasunik, biok nolabait badakigulako xake partidu hori jokatu baino lehen galdua dugula eta ezingo dugula ezer egin honen aurka. Heriotza, nola edo hala, beti garaile. Ezagutzen dituzu naturaren legeak, batzuek suertea daukate, besteok existentzia konplikatzeko dohaina.

Ohitzen joateko ekarri ninduzun hilerrira, ezta? Mentalizazio prozesuaren osagai bat da hilarriz hilarri hildakoen izenak irakurtzea, gutxi gora-behera norekin aurkituko naizen jakiteko. Zuk ere adi irakurtzen zenituen deiturak, nor maiteminduko zenuen jakin nahian. Hemengo esku asko zure hankartetik igaro zirela pentsatzeak oraindik tristeago jartzen nau, serieko zenbaki bat izan banintz bezala zure historialean. Goibeltasuna erori ziren bizitzaren soldadu ezezagun hauen aurrean. Anna... 1978-1996, ez nuen uste hemen lurperaturik egongo zenik. Itsasoan utzi zutela pentsatzen nuen; bere amonaren alboan dago ordea. Amelia, zure edertasun trajikoa oraindik indartuagoa iruditu zitzaidan zure alabaren hilarriaren parean. Ez zen malkorik egon, baina bai lore zuri haien artean malenkoniarekin batera "gero arte" sakon bat. Gaur ere Annaren ahotsa entzuten dut "poeta espainiarrak fusilaturik hil ziren liburutegietan" behin eta berriz esaten. Ez naiz galderarik luzatzera ausartzen, eta ausartuko banintz ere, ez nuke erantzunik jasoko. Izpirituek isiltasun pertsonala mantentzeko desio ikaragarria erakusten dutelako. Ez, ez nago oraindik hilik, urrutian haurrak futboleant jokatzen entzuten ditudalako Annaren ahotsaren gainetik, baina honek heriotzaren antz handiegia duela ezin dut ukatu.

Nola iritsiko den jakin nahi nuke, zer nolako jantziekin. Irribarre batekin ala triste? Kantari ala isilik? Kaioak marrazteari ekin diot berriz ere denbora galtzeko. Bestela asko aspertuko nintzatekeela uste dut. Eta egunero bisitaxo bat egiten dizut ea atzo bezain ederra ote zauden. Zure alaba gauero agertzen zaidala ametsetan badakizu, beti esaldi berbera esaten "poeta espainiarrak fusilaturik hil ziren liburutegietan" eta ni nortzuk izan ziren gogoratzen saiatzen naiz. Hasierakoetatik gaur egun gosez hiltzen diren horiek arte. Jendeak utzi diolako herri santu honetan

irakurtzeari, margotzeari, edozein gauza egiteari telebista ikusi eta hondartzan kiskaltzen arratsaldeak igarotzeagatik.

Guk, bitartean, iragan batean hondoraturik bizi garen ez gero, ez dugu hauen beharrik, nahikoak ditugu zure edertasun trajikoa eta nire eromena. Erotzen hasi naizelako, Amelia, bakardadeak erotu nau, XXI. mendeak zeharo erotzen nau, mundu modernoak erotzen nau. Eta eromen honen erdian, pekatarien artean Ama Birjina bat bezala, zu aurkitzen zara, ohe honetan, isilik baina eder, edozein birjina baino ederrago. Zeren heriotzak ematen duen edertasuna zaila da bestela gainditzeko, honengatik gorde nahi zaitut nirekin azken ordua iritsi bitartean niretzat, hurrengoan ez baitzaitut modu berean ikusiko. Hurrengoan, beste mundu batean, bizirik izango zara. Eta nik hotz zaitut gus-tuko, zure aurpegiaren espresioa nola aldatzen den ikusi gabe uki zaitzaket orain. Plazer irribarre hori ez da zure musutik mugitzen, plazerrez hil zinelako nire besoetan gau hartan.

Bai, maitea, Annaren ahotsak oraindik esaldi hori esaten dirau. Jakin nahi nuke nonbaitetik atera zuen ala berak sortua izan zen. Paper batean idatzirik aurkitu nuen zure jantzien artean, eta ez dut oroitzen inoiz aipatu nizunik. Agian misterioaren bat izan zenuten biok Kantauri eta Egeo itsasoak nahasten ziren leku irudikatuan. Bitartean, eta hau guztia argitu arte, nire gorputz biluziak, zure gorputz biluzian gogoetaz beteriko pintzel umil batez, kaoak marrazten ditu... eta hauen erdian... urrutian galtzen... fusilaturiko poeta espainiar hilak... mugan, beti mugan.

P.D. Zu ez zara konturatzen, ahaztea ahaztu zait.

Benta ilunetan da nire gogoa

Iker Yurrebaso Picaza
Arratia B. institutua
Igorre

Tabernaren bazter batean eseri da Eva, egurrezko mahai zahar batean, bakarrik, eta konturatu denerako nerbioek bere laugarren basoko likorea edan diote. Gaur ez, gaur ez ditu ezpainak gorritz margoztu, ez du hamasei urteko mutikoen begiradak erakarri nahi izan. Gauak beroak izan ohi dira garai hauetan eta duela egun batzuk erositako jantzi arin batekin atera da etxetik. Bere poltsa beltzean bazkaldu aurretik bankutik ateratako dirua darama eta, toki berean jarraitzen duela ziurtatzeko, esku mehea luzatzen du hogeitasegunduro, bada-ezpada ere, nork daki. Bere gaineko moreak titi borobilak ezkututzen dizkio, gaur ez, gaur ez duelako lesbianen begiradak erakarri nahi izan. Nekez ikusten zaio ilearen kolorea, iluna delako taberna, itzalekin betea. Hala ere ilunagoak dira bere tximak. Kanpoko iragarkiaren argi intermitenteak tabernari semaforo itxura ematen diola pentsatu du Evak, eta likoreak irribarre lelo bat margotu dio ahoan. Orduan, ea hau Borisekin topatzeko toki aproposa den galdetu dio tabernariari. Baina honek, basoak sikatzeari utzi gabe, gaineko morearen zirrikituetatik titietara begiratu dio.

Gutxitan izaten ditu horrelako emakumeak tabernan. Betiko mozkorti berberekin nekatuta dagoelakoan nago, betiko baso berberak sikatzearekin nekatuta. Denbora

gehiegi da elizako kanpai hotsak leihorik gabeko bizitzatik entzuten dituela, asko ezer gutxi izatetik zerbait izatera pasatu zenetik. Eta gaur beranduegi da maitasun eskutitzak idazten hasteko, portu ondoko fabrikaren abokatu antiojodun hark, Buenos Aires-ko enpresa erraldoi batetik etorri berria zen hark, ez zizkion gauzak errazegi jarri eta. Izan ere, lapurrarena oso ofizio zaila baita. Lan gabe utzi eta gero, auto berrirako ezin hobeto zetozkion piezek balio zutena halako hiru ordaindu behar izan zuen, eta hiriaren beste aldean bizi zen lehengusu bati bere tabernan lana eskatu gero. Mundua gainera erori zitzaion gixajoari, eta barneko amorru eta inpotentzia nonbait xehetu behar zuela eta, putetxeetako ohizko bezero izaten hasi zen. Errukienak putak. Seguru gaur antiojoduna ikusiko balu asperraldiek jandako ardo botila bat buruan txikituko liokeela, eta bere beste lehengusu bati fidantza ordaintzeko eskatu gero. Eta bere zoritxarra gogoratzen duen bitartean, gaur ere ez du loteria erosiko, sartu berri den betiko mozkorti bati betiko baso berean gutxituz doan whiskya ematen dio, begiak tabernako bazter batean jezarrita dagoen emakume ezezagunaren titietatik aldendu barik.

Baina Eva tabernako horma batean kamuflatuta dagoen eta kanpoko iragarkiaren intermitenteak erdiargitzen duen erloju handi eta borobil hartan dago kontzentratuta. "Oraindik bost bat minutu faltako dira Boris heltzeko", pentsatu du taberna osoak entzuteko moduan, eta goizean goizetik, begiak zabaldu dituenetik barruak jaten ibili zaion inurritegia itotzeko itxaropenean, beste baso bete likore eskatu du, soilik tabernariak ikusteko moduan. Bero-bero dago tabernaria, eta Boris horri aurpegia apurtzeko gogo bizi batek beroago jarri du. Itzalen artetik itzalezko izaki bat hurreratzen ikustearekin batera, eskua poltsara eraman du, azkarregi bera bezalako emakume delikatu batentzat,

eta bere likorearekin datorren tabernaria dela konturatzean, disimulatzeko edo, tabako paketea atera eta zigarro luze eta mehe bat erretzen hasi da. Baina tabernaria lapurra bai, baina ez da alua, ez Evak pentsatu adina behintzat, eta basoa nazka aurpegiz eta modu txarrez utzi du mahai zahar-rean. Gaur ere putetxera joan behar. Hala ere Evak ez du ezer ere ikusi, existitzen ez den tabernako horma batean inolako dudarik gabe kopia txar bat zatekeen koadro batean dagoelako kontzentratuta, asko baitaki arteari buruz, batez ere tabernetako irudi faltsuei buruz. Evak estilo handiz erretzen du, batez ere gauez, baina gaur kosta egiten zaio kea botatzea, Boris heltzeko minutu pare bat baino ez delako falta. Sartu berri den gaztea Boris ote den galdetu dio bere buruari. Baina ez, gazteegia dela erabaki du.

Markosek bi arreba ditu, biak gazteagoak, biak oso politak. Berea ez da familia aberatsa, etxola zahar batean bizi dira, bost izarreko hotelen eta palmondoz beteriko palazioen ondoan. Gertatzen dena da berari beroak eta turistek lan egiteko gogoa kentzen diotela, eta gurasoak ia egun osoa etzanda eta bere lagun horiekin bilarrean jolasten pasatu behar duen, ea ez duen etxean ezertan lagundu behar galdezka, gelditu gabe. Esplikatu die zein den arazoa, baina argi geratu da ez dela pisuzko arrazoia. Bera ahalegintzen da hala ere, baina lan eske sartu den leku guztietan itzalekin betetako tabernak eta putetxeetako ohizko bezeroak diren tabernariak aurkitu ditu. Bera ahalegintzen da, benetan, eta badaki diru piska bat egiten duenean, telebistetan bidai agentzien iragarkietan agertzen diren toki horietariko batera joango dela. Benetan, badaki noizbait auzoko bilarren monotoniatik ihes egin eta Frantzia handi horretara joango dela. Seguruenik enpresa garrantzitsu batean hasiko da lanean. Izan ere, beti izan baita klaseko beste guztiak baino zuhurragoa, hori esaten zuen behintzat

irakasleak. Eta han dirua egingo du, eta bere bi arrebei –politik biak– astero idatziko die, eta diru asko egingo duenez zerbait etxera ere bidaliko du, eta gero bere enpresa eraikiko du, eta diru gehiago egingo du, eta gabon inguruan bere auzoko bilarrak bisitatzera joango da. Baina ez, pena da, baina urrun geratuko zaizu Frantzia handi hori, zure irakaslea gezurtero galanta zen gainera. Eta ez ahaleginduko ez zarelako, plausta, esnez beteriko ontzitxoa eroriko zaizulako baizik. Dena ez da dirudien bezain polita, eta zeruko aingeruek ez dituzte tronpetak joko zuretzat. Baina lasai, oso politik dira zure arrebak, eta inguruetako bilar jokalaririk hoberena bihurtuko zara, larrujolerik hoberena. Tabernatik irten eta gaur ere lanik gabe baina frantsesa ikasten hasi behar duela pentsatzen etxerantz abiatu da, aurrean zortzi zenbakia daraman autobusean.

Zortzi aldiz eta telefonoz baino ez du Borisekin hitz egin, eta beti kaleko hori koloreko kabinetatik, "arreta profesionalak", esaten zuen Borisek. Ahots erakargarria duela iruditzen zaio Evari, hitz egiterako orduan bere eztarritik ateratzen den hots berezia dela eta. Hiru silaba baino luzeagoak diren hitzak esaten dituen ahotsa grabeagotu egiten zaio; gogorra du hizkera, metalikoa, baina sexia. Seguruenik egunero hamabost bat zigarro erreko ditu eta, bere antzera, Borisek ere likorea edango du, seguru. Ez daki zehatz-mehatz zenbat urte izango dituen, baina hogei-ta hamabi egin berriak dituen gizona imajinatzen du, atletikoa eta zinezalea. Hitz egiteko duen eragatik, lanean serioa eta jokoan zuhurra dela uste du, Humphrey latino bat. Izan ere, detektibearen ogibideak ez baitu errazena izan behar. Eta gaur lehendabizikoz egin dute zita, bere lana bukatutzat eman omen duelako. "Ezagutzen duzu taberna? Itzalekin beteta dagoen bat da". "Bai, baietz uste dut". Ez zion Evari ezer esan nahi izan telefonoz, nahiz eta

Evak bazekien eta gaur ere badakien Borisek esan behar diona. Baina nahiago du norbaiten besoetan negar egitea, hori koloreko telefono kabina batean eta bakarrik baino. Hobe izango zela eta, gaur bere telefono lagunarekin egin du zita. Gero, agian, likore bana hartuko dute batera, eta larrua joko dute, hotz eta zakar. Evak bere bigarren zigarrora piztu du, gero eta estilo gutxiagorekin. Ez du taberna-riak jarri berri duen musika entzuten, Borisekin egin baitu zita, eta ez jazzarekin. "Jazza!", esan du kanpotik mulata batek.

Betidanik gustatu izan zaio musika Rakeli, batez ere saxofoijolearekin maitasuna egin zuenetik, pasioz. Lanetik etxerako bidean ikusi zuen. Lanean gogor aritu ondoren, nekatuta zegoen, eta ez oso umore onean, baina musikak erakarri egin zuen. Uda zen, eta iluntzen hasia, eta munduko saxofoijole guztiek egin ohi duten antzera, farola luze eta bakarti baten argipean babesten zen. Rakel hurreratu eta, bere inguruan bilduta zegoen jende multzoa atzean utziaz, aurrez aurre jarri zitzaion. Saxofoiaren tristurak bihotza irauli zion, baina gustatu zitzaion sentsazio hura. Eta izebarenetik zetorren mutikoak, eta gamelua bisitatze-tik zetorren yuppie trajedunak, eta liburu bat bera ere saltzea lortu ez zuen poetak etxerako bidea hartzen zuten bitartean, Rakelek han jarraitu zuen. Nota askoren ostean, hirian azken mozkorren kantuak ere isildu zirenean, azkenean, eta orduan bakarrik, saxofoijoleak begirada jaso zuen, eta Rakel ikusi zuen aurrez aurre. Bular bigun eta ipurdi mamitsu haiekin, izter dotoreak bereak. Saxofoia kontu handiz zorroan sartu ondoren, biak parkeko bazter ilunenera abiatu ziren, itzalez beteta zegoenera. Rakel bertan urtu zen. Artista bertan hustu zen. Artistak biak. Badakizue poza zer den? Badakizue goxotasuna zer den? Maitasuna? Rakeli –musika– gustatzen zaio, baina are

gehiago musikariekin maitasuna –musika– egiten duen bitartean konpasa eramatea.

Eva mozkortuegia dago konpasa eramateko eta tabernako atea zabaldu dela konturatzeko. Berrogei bat urteko burusoil bat atean gelditu da eta, kanpoko aldera begirakune zorrotz bat bota ondoren, sartu da barrura. Txiki izateak tripa puzten dio, baina hala eta guztiz ere ez du inoiz medikuak agindu dion dieta hasi. Gehiegi gustatzen zaizkio txerrikiak. Jaka eta fraka multikolore laburrak ez dira elkarrekin ondo ezkontzen eta masail potoloen gainean daramatzen antiojo lodiek nahiko itxura barregarria ematen diote. "Jazza!", bota du. Egunkaria eskuetan tximur-tximur eginda daramala ibilera azkarrarekin tabernariari hurbildu zaionean, honek beste turista amerikar bat izango dela pentsatu du. Baina garagardo bat eskatu dionean, azentuak bertakoa dela adierazi dio. Gogoratzen zuena baino ilunagoa da taberna, badakizu, itzalekin betea, eta antiojoen atzetik kosta egin zaio ezer bereiztea. Ke artean bigarren abestiak indarra hartu du, eta "Jazza!" esan ondoren garagardoa hartu eta Eva dagoen bazterrera hurbildu da, mugimendu ziurrekin. Egunkaria besapetik hartu eta mahai zaharrera bota du; bat-batean barrutik zuri-beltzeko hamar bat argazki hegaz atera dira. Orduan konturatu da Eva ondoan turista amerikarra ez den potolo bat eseri zaiola eta, gainera, daramatzen jaka eta fraka multikolore laburrak ez direla elkarrekin ondo ezkontzen. Argazki pornografikoak saltzen dituen potolo bat izango dela pentsatu du hasieran. Baina argazkietan lau edo bost emakume desberdinekin agertzen den gizona –eta ez partxisera jolasten hain zuzen ere– bere senarra dela ohartu denean, hizkera gogor, metaliko batez "Ni nauzu Boris, eta berrehun dolar amerikano dira argazkiak, eta beste hirurogei gasolinagatik" entzun du.

Gaur Evak negar egiten du, bakarrik, itzalekin beteta dagoen tabernaren bazter batean eserita, ez bere senarra putakume bat delako, bere Humphrey potoloa, jazza gus-tatzen ez zaiola esanaz, aurrean bederatzi zenbakia daraman autobusean joan delako baizik. Gaineko morea kendu eta, titi borobilak disimulatzen ez dituen alkandora zuria-ekin, beste likore bat eskatu du.

Alaba galdua

Ane Larrañaga Ormazabal
Olabide ikastola
Gasteiz

Igande gau hartan ez zebilen inor kalean. Ez zen soinurik entzuten, ez zen bizirik somatzen. Bakardadean murgildutako irudia zirudien hark. Bat-batean katu beltz eta likits bat azaldu zen automobil zahar baten gurpilen artean, eta hango desolazioak izutuko balu bezala, korrika egi-teari ekin zion. Baina tristura sentsazio hori berarekin zera-mala ohartu zen katu gajoa, hiri guztia egoera berdinean baitzegoen. Galdurik, irtenbiderik gabe zegoen, aldamenentan somatzen zituen itzal beldurgarriak atzamarkada batez deuseztatu nahirik. Hiribidean behera jarraitu zuen katuak, harik eta irtenbiderik gabeko karrika batean sartu zen arte.

Horma sendo bat ikusi zuen katuak bere aurrean. Gehiegi pentsatu gabe, jauzi handi batez, hegaleko leiho batean gelditu zen. Leihoa zabalik zegoen eta gortinak, urdin argiz tindatutakoak, haizearen jostailu bailiran higitzen ziren alde batetik bestera, etengabe. Burua etxe barnealderantz biratu zuen eta hantxe gelditu zen, leihotik barrenera so, geldirik; inguruan arriskuren bat somatu izan balu bezala. Berehalaxe ihesari ekin zion berriro ere. Korrika, beti korrika... atzean utzi zituen gortina urdinak eta karrika bazterreko zaborrak, automobil zahar hura eta amaiera gabeko hiribidea.

Argitu zuen egunak eta eguzkiak Marie lotan aurkitu zuen, bere apartamentuko logelan. Amets ederrak izan zituen gau hartan, baina bat-batean dena ilun bihurtu zen berarentzat. Ez zuen ezer ulertzen. Nora joan ziren Karibeko hondartza paradisiako haiek? Non ote zegoen hainbestetan beso artean izan zuen Luc maitea? Orain, beraien artekoa erabat amaitua zegoela, ametsak ziren berarekin egoteko gelditzen zitzaion era bakarra, eta ametsak ere bat-batean desagertzen baldin bazitzaizkion...

Ezinegon jasanezin batek esnatu zuen Marie. Ez zen ezertaz oroitzen, bere ametsetakoa iluntasun trinko hartaz izan ezik. Bere erraietan barrena sorturiko ondoeza zen hura eta ezin zuen beragandik inolaz ere aldendu. Egun hartan zerbait gertatuko zen bihozkada zeukan, baina ez zekien zer arraio izan zitekeen. Susmo txarrak alde batera utzi nahirik, ohetik jauzi batez irten eta, jantzi ondoren, gosaltzeari ekin zion.

Kafesne beroa eskuetan zuelarik, pentsatzen hasi zen. Begirada sukalde txiki hartako txokoren batean finkatuta zeukan, erdi galdurik.

"Harrigarria da zeinen azkar desbideratu daitezkeen orain arte zuzenenak ziren bideak! Erabat zoriontsu izate-tik, zeharo bakar sentitzera igaro naiz."

Aldizkari batean lan eginez iragan zituen azken bost urte hauek; egunero artikuluren bat edo beste idatziz, nohizbehinka elkarrizketaren bat eginez edo erreportaiaren bat prestatuz. Salmenta eskasak zirela eta, aldizkariak bere atea itxi behar izan zituen, langile guztiak langabezian utziz. Hori ez zen ordea, Marie gehien kezkatzen zuen arazoa.

"Azken finean, lan aukera gehiago izango ditudala ziur nago, baina Luc bezalako gizonik ez dut inon topatuko eta beste inork ezingo du berak utzitako hutsunea bete."

Luc eta Marie-k bi urte zeramaten elkarrekin ibiltzen. Zoriontsuak ziren eta beraiek elkarrengandik banatuko zituenik ez zegoela pentsatzen zuten. Baina tentaldia agertu zitzaion Luc-i lantokian eta honek ez zuen bere maitasunari lehentasuna ezartzen jakin. Tentaldiak Claudia zuen izena eta Historia Departamentuko irakasle berria bezala aurkeztu zuen bere burua Luc-en aurrean. Hasieran kafeak hartzeko soilik gelditzen ziren; geroago, azterketak zuzentzeko txanda heldu zen, azkenik asteburu osoak ikerketan lanetan ematen zituzten arte...

"Asko sentitzen dut, laztana, baina zurekin inoiz nabaritu ez dudan sentimendu bat pizten zait bihotzean Claudiarekin nagoen bakoitzean. Zuk ez nauzu asetzen, berak ordea, bai."

Hitz haiek entzun zituen unean, beraienak egin zuela ulertu zuen Marie-k. Berak aurrez bazekien Luc-ek beste norbait zuela ezkutuan beraz gain, baina ez zuen onartu nahi izan. Ez zuen horretarako adorerik. Egun hartan Marie-k Luc, masailan muxu bero bat eman ondoren, bere apartamentuko atetik irteten ikusi zuenean, bizitza erabat zentzugabea zela ohartu zen. Bere senargai ohiaren trairioak baino gehiago mintzen zuen beraien artekoa berreskurazina zela jakiteak. Une hartan Marie-k bere bizitza filme bat balitz bezala errebobinatu nahi izan zuen, egun batzuk lehenagoko ezjakintasunean murgildurik egotea nahiago zuen, eta ez orduko zorabioan, saminean eta etsipenean galdurik. Luc-ek eta berak igaro zituzten momentu guztiak oroitzen hasi zen, bere masailatik malko lodikote bat irristatzen zen bitartean: besarkadak, amaiera gabeko

muxuak, elkarrekin ohean igarotako orduak, Luc-ek burua bere bular aldean zuela izaten zituzten solasaldiak...

Krass!!! Marie errealitatera itzuli zen eta esku artean zeukan katilua lurrean hautsirik ikusi zuen.

"Nolako baldarra zaren! Ezin dut honela jarraitu. Luc nire bizitzaren atal bat izan zen, baina dagoeneko amaituta dagoen zati bati dagokio. Orain bizitza berri bati ekin behar diot; ala ez?"

Hiriaren inguruneko paraje haietan era kaskarrean elkarren ondoan jasotako zenbait txabola zeuden. Bertan ijitoek ez ziren ondo bizi, ezta gaizki ere. Ez zuten ezer hoberik ezagutzeko aukerarik izan. Etxetzat zituzten plastikotiko, kartoi, egur eta burdin zatietatik at bi ijitotxo zeuden; erabat zikinak, erabat zarpailak. Urrutian, gau hartan azal dutako katu beltza ikustatu zuten.

"Goazemak katu harrapatzera!" zioen haietako baten begiradak. Lagunak segituan ulertu zuen mezua eta korrika abiatu ziren bere bila. Katu likits hari buztaneko ilajea falta zitzaiola ohartu gabe, isatsetik heldu zion deabrutxo haietako batek. Jiraka eta biraka, gora eta behera, ezker eta eskuma jardun zuen harik eta aspertu zen arte.

Katu gajoa. Bere ingurune guztia bueltaka somatzen zuen. Galdurik, noreazean zebilen. Mutilak isatsa askatu zionean, korrikari eman zion berriro ere. Oraindik ilargia gauaren jabe zenean jardun izan zuen bezalaxe.

Ez zeukan inolaz ere horrelako asmorik, baina egin zuen. Ezinezkoa iruditzen zitzaion, berak ez baitzituen aurrez finkatutako plangintzak bertan behera uzten. Oso emakume metodikoa zen. Baina Marie, astelehenero bezala kalean lan bila aritu beharrean, egun hartan etxean gel-

ditu zen. Ez zekien zer bultzatu zuen bere errutina hura apurtzera, baina ez zuen batere atsegin. Zuzenean idazmahaira abiatu eta orri txuri baten aurrean aurkitu zuen bere burua, esku artean Luc-ek oparitutako luma zuela. Denbora asko ezer idatzi gabe igaroko zuela susmatzen zuen eta ez zuen bere barrena askatzeko aukera hura galdu nahi.

Helburu finkorik gabe idazten hasi zen, hitz solteak, zentzurik gabeko esaldiak, orri txurian barrena murgilduta aurkitu zen arte. Gustura sentitzen zen. Idazteko grinaren atzaparretan erori zen eta bere lumaren tinta urdina etengabeko hitz jario bihurtuz zihoan. Orduak eta orduak igaro ziren, baina Marie-k ez zuen bazkaltzeko beharrik sentitu. Bere lanean kontzentratuegia zegoen errealitate hartatik kanpora gelditzen zen beste ezertaz jabetzeko. Barreneneko sentimentuak azaleratu zitzaizkion, aspaldidanik erabat ahantziak zituela uste zuen horiek.

Ama hil zitzaionekoaz oroitu zen orduan. 12 urte besterik ez zituen eta heriotza hura kolpe bortitza izan zen Marie-rentzat. Nork esango zukeen bizitzeko hainbeste gogoz betetako emakumea patuaren joko zikin baten biktima izango zenik? Auto istripu batean joan zitzaion ama, mozkor baten zentzugabekeria larrutik ordainduz. Latza suertatu zitzaion Marie-ri emakume gazte hura gehiagotan ikusiko ez zuela onartzea. Adoleszentzian hain beharrezkoa den ama gabe bizi behar izan zuen, baina hala ere aurrera egin zuen. Dena oroimenean gordeta zuela uste zuen, dena erabat ahaztua zuela. Baina bat-batean, ezustekoren bat gordetzen duten kutxa horietako bat bezala zabaldu zitzaion bihotza Marie-ri eta aspaldidanik ezkutu gorde nahi izan zuen ondoeza azaleratu zitzaion berriro ere. Berekoikeria etorri zitzaion burura, heriotza haren

aurreko egunean biek izan zuten eztabaida; dena alaba egoskorraren berekoikeriagatik. Amaren bizitzaren azken uneetan barkamena eskatu ezin izanak gaixotzen zuen Marie eta oharkabean bere buruari leporatu izan zion urte askotan bere amaren heriotza. Urtetan zehar bere amaren irudia deuseztatzen saiatu zen, baina ez zuen inolaz ere lortu.

Bere barreneko mamu beltzak eta izuak paperean aire-ratzen zebilen heinean, samin ikaragarri bat sortzen ari zitzaiola eta oraingoan ezingo zuela gehiago ezkutatu ohartu zen.

Une hartan sentimentu berezi bat piztu zitzaion Marie-ri. Ezinezkoa zitzaion zer zen zehaztea; bere kontzientzia gainditzen zuela sentitzen zuen. Zerbaiten presentzia perzibitzen zuen, baina ezin zuen ezer ikusi. Erabat liluraturik zegoen, zentzumen guztiak blokeatu zizkionaren nortasuna ezagutu nahirik zebilen. Itzal bat ikusi zuen.

"Ez da posible. Erotuta zaude! Zure irudimenaren joko bat besterik ez da, Marie. Sinetsidazu, hobe bazkaldu izan bazenu..."

Itzala hurreratuz joan zitzaion eta astiro, mugimendu geldoen bitartez, eskutik heldu zion.

"Nor zara? Zer zara zu?"

Ama, ama. Ongi ulertu al zuen? Baietz, horixe iruditu zitzaion, baina ez zegoen batere ziur. Guzti hura desager-tarazten saiatu zen; alferrikako ahalegina izan zen, ordea. Bere senak amesgaizto bat besterik ez zela zioen; bere bihotzak, aldiz, ama zela sinetsi nahi zuen. Sinetsi behar zuen! Barkamen bila zetorren ama, alaba galduaren bila zetorren...

Eskutik tiraka hasi zitzaion emeki-emeki, bereganatuz. Marie-k ez zekien zer egin. Gora begiratu eta etsipena ikusi zuela iruditu zitzaion. Keinu bortitz baten bidez ihes egin zuen logelaraino eta ohe gainera bota zuen bere burua, negarrari emanaz. Bere egoera aztertu zuen eta ez zuen batere atsegin ikusi zuena: amaren oroimena berriz bere bila bueltatu izana, Luc-ekin pasatako tragu txarra, bere burua langabezian aurkitzea... bizitza erabat aldrebesa eta zentzugabea zela ohartzeko adina arrazoi bazituela pentsatu zuen.

Ilunduz zihoan astelehen hartan. Egunean zehar jendez gainezka izandako kaleak poliki hustuz zihoazen, bakardade hotz bati tokia eginez. Katu beltza agertu zen. Jateko zerbaiten bila ibili zen egun guztian zehar, baina ez zuen mokadurik lortu. Atsekabeturik zebilen sabela beteko zion edozer gauzaren bila. Hara eta hona jardun zuen. Hara eta hona egun guztian zehar. Hara eta hona etengabe.

Denbora luzean jardun zuen Marie-k gogoetan. Bere bihotzaren barreneraino sakonduz eta erraietan sortzen zitzaion samina arintzen ahaleginduz, gauak bere beso ilunekin hiria estali zuela konturatu zen. Goiz hartan amets goxoetatik urrundu zuen sentimentu berberak astindu zuen berriro ere Marie. Hotzikara berdinak somatzen zituen, ikara berbera... salbuespen txiki batekin: oraingo honetan bazekien sentimentuak adierazi nahi izan ziona. Arras seguru zegoen horretaz. Barrena lasaiturik zeukan oraingotan eta sosegua beraren jabe egin zen. Instintiboki egin zituen mugimendu guztiak, beste norbait urrutitik hari guztiak higitzen arituko balitz bezala. Bere burua pauso handi hura emateko prest ikusi zuen eta batere zalantzarik izan gabe abiatu zen.

Irtenbiderik gabeko karrika bat ikusi zuen katuak. Bertara sartu bezain laster, ezaguna egiten zitzaiola jabetu zen. Begien aurreko horma, bazterretako zaborrak, hegale-tako leihoak... Banan-banan begiztatu zituen guztiak harik eta zerbait arraroa ikusi zuen arte. Leiho bat erabat zabalik zegoen, bosgarren pisuan. Urdinez tindatutako gortinak zituen eta haizearen eraginez mugitzen ziren. Ezker-esku-ma, ezker-eskuma, ezker... Irudi hura nonbait ikusia zuela pentsatu zuen. Hango usainak desberdintzen zuen une hura, hango usainak. Sabela estutzen hasi zitzaion, gosearen poderioz, gauaren koloreko katu hari eta janariak hur-bil egon behar zuela erabaki zuen. Bere bi begiak lurtean finkatuz, oraindik bero jarraitzen zuen odol arrasto bat ikusi zuen eta, aztarnari jarraituz, hildako gorpu bat aurkitu zuen bere bi katu begien aurrean. Bere goseari ez beste edozeri jaramon egin gabe, asetzeari ekin zion. Beste egun batez hiri bakarti eta jelatu hartan bizirik irautea lortu zuen. Noiz arte?

Amodioaren pasioa

Garazi Goia Imaz
Alkartasuna lizeoa
Beasain

Maitasuna
leihotik sartu berri den arrastiriko
azken olatu hori da
zeinak amoranteak ohean besarkaturik
aurkitu dituen.

Joan Mari Irigoien

Ohearen egurren kirrinka hotsen, eta neke eta aldi berean gozamenduzko arnas hasperenen artean, bi gorputz biluzi ginen, zu eta ni, sexuaren plazerraz gozatuz, maindire bustien artean, arima basatiak baiginan.

Zure esku leunak nire titien artean galtzen ziren, zakilaren sartu-irten azkarraren erritmoan, iztarrean zehar irris-tatzen zitzaidan odola ukituz. Zure bihotz taupada azkarrak entzuten nituen aurpegia bularraldera hurbiltzen nizunean. Indarrez heltzen zenidan, behin eta berriz musukatzen. Atsedean une laburretan maitasun hitz gozoak xuxurlatzen zenizkidan belarrira.

Denbora luzez, sosegurik gabe, plazerrez ito arte aritu ginen; amodioaren benetako pasioa biziz.

Logelan, ohearen alboan zegoen leihoko gortina zarrastatuen artetik, kanpandorreko ordulariak hiru eta erdiak markatzen zituela iruditu zitzaidan. Bizpahiruren bat minutuz begira geratu nintzaizun. Lo zeunden; bularraldearen azpitik beso izerdituekin heltzen zenidan, hankak nireen artean korapilatuta zenituen. Ahal nuen moduan ohetik atera, masailan musu bat eman eta besaulki gaineko arropak jantzi nituen adats luze korapilotsuak orraztearekin batera.

"Ostiralean, Montmartre plazan, 6:30etan". Marie.

Ezkaratzetik irten eta presaka abiatu nintzen etxerantz; bertan aurkituko nuenaren beldur nintzen. Karrikak hutsik zeuden; noizbehinka kotxeren bat pasatzen zen, gauaren isiltasuna hautsiz. Parke ondotik pasatzean, eskale bat ikusi nuen, farolaren argipean, lurrean etzanda, botila ardoa eskuan.

Horrela ibiliko ote da Maurice?– pentsatu nuen nire artean.

Nekatuta sentitzen nintzen, gorputza likistuta nuen hartu nuen izerdituaren ostean, titiak mazpilduak baleude bezala sentitzen nituen.

Etxera iristearekin batera, Maurice ez zegoela konturatu nintzen. Bere jaka ez zegoen ate ondoan zintzilikatuta, ohea ere hutsik zegoen. Eskerrak.

Ostiraleroko legez, goizaldera etxeratuko zen. Nazkatuta nengoen aste bururoko negozio afariekin. Hasieran larunbat gauetan izaten ziren; baina hilabete gutxiren buruan ohiko bihurtu ziren ostiraletako irtenaldiak ere. Eta azkenerako asteburu osoa bakarrik igarotzen nuen. Zurrutari ematen hasi zen, alkoholari aiher zitzaion eta ardoaren

memoria erratua zela medio hondatu zen gure bikote bizitza. Zirudienez, ardotan itotzen zituen pena eta tristura guztiak. Ezkondu ginenetik apurtuz joan ziren bion artean lotutako kateak; negozioen munduari atxeki zitzaion gorputz eta arima; itxuraz nahiago zituen lantegiko afariak, nirekin oheko solasaldiak baino. Maitatzen ikasteko denborarik ere ez genuen izan; azkarregia izan zen guztia.

Ezkonberritako bigarren hilabete ingurua izan zen maitatu nuen azken eguna. Hasiera batean, izugarrizko bakardadeak gaineratu ninduen. Jasangaitza zitzaidan guzti hura, norbaitek benetan maitatzea behar nuen. Irtenbiderik gabeko putzu sakon batean hondoratzeraino doala iruditzen zitzaidan, gau hartan ohean eskaini nintzazun arte. Zuk itzuli zenidan bizitzen jarraitzeko adorea, zu izan zinen bizitzako pasadizo ilun guztiak argitu zenizkidana, Maurice maitatu nuen azken gauaren ostean pixkanaka galduz joan nintzen sexuaren plazerra bereganatuarazi zenidana.

Goizeko laurak eta laurden. Laster izango da Maurice etxean. Nire alboan oheratuko da, alkoholez leporaino horditurik, ardo eta whisky kiratsa dariola, kamiseta keztaturik eta oharkabean aldegindako txiz tantez bustitako galtzontziloekin. Niregana hurbildu eta amodioa egin dezagun eskatuko dit, eta nire erantzuna entzuterako gogorki helduko dit, inongo gozotasunik gabe. Bere atzamar lodiekin ukituko nau, titiei gogorki helduz, min egiteraino. Aspertzen denean, hor utziko nau, ohearen gainean, trapu zaharra bainintzan.

Orduan zure laztan eta losinez gogoratuko naiz, zure hitz ezkiez; zu izaten zara une horietako amesgaiztoen askatzaile. Oihu egin nahiko dut, nire sufrimendua adierazi, ez dudala maite errepikatu.

Hala ere, bere esana egingo dut, ezer ukatu gabe, inoiz atsegirik lortu gabe ordea. Gizon odolgaitz bati saldua diot gorputza, baina ez naiz beldur. Ohean azaltzen duen hantustekeria hori, azken batean, inoiz lortu gabekoaren bere fantasiak besterik ez dira. Zure eta nire arteko amodio sutsuaren itzalean, gau batzuetako nire "konpromisoa" da, nolabait esatearren.

Eskaileretan gora norbait badatorrela antzematen dut. Bai, bera da, eskaileretan balantzaka. Badator...

Zoriona, maitasuna

Naiara Olaskoaga Bereziartua
Gabriel Aresti B. institutua
Bilbo

"Emakume, zure barrea
bizitzaren sorrerako
iturriaren kantua da"

Rabindranat Tagore

Buztin kaleetako baten ertzean mutikoek apustuak botatzen dituzte. Hik ez daukak horretarako barrabilik. Bat altxa eta maukan ezkutatuta zeraman harria bota du pareko etxearen leihotik barrura. Emakume bat agertu da leihora, baina aspaldi desagertu dira umeak herrixkako kaleetan barrena, ibai aldera, eta ezin izan ditu ikusi ere egin. Emakumea etxe barrura itzuli da, eta itzal artean pitxer puskatu berriaren zati guztiak bilatzen ahalegintzen da, berriro konpontzea ezinezkoa dela jakinik ere, eta negarrez hasi da, pitxerra oso polita zelako, eta gaur egungo gazteen izaera ulertzen ez duelako, eta orain erratza pasa beharko duelako, eta nekatua, nekatuegia dagoelako jadanik.

Bikote gaztea zuzen, ibaiaren bidea paraleloki jarraituz, paseatzen dabil, mutikoak korrika pasa direnean. Aurreraxeago neskak mutilari begiratu dio, eta maitekiro belarria musukatzen hasi zaio, leun, gozo, mutilak eskua

aldaketan behera jaisten dion bitartean. Horrela momentu luze batean egon ondoren, mutilak asko maite zaitut, lazta-na, esan dio, ezkondu gaitezen, mesedez, eta neskak besarkada luze batez erantzun dio, belarrira, bai, maitea, lehenbailehen ezkon gaitezen.

Ibaiaren beste aldean berriz emakume bat dago ume batekin. Umea uretan txipli-txapla ari da jolasean, amak arratsaldeko eguzki goxotan lasaitasun apur baten bila diharduen bitartean. Emakumearen atzeko aldetik bere antz handia duen beste andere bat agertu da, hau ere ume bat besoetan duela, kaixo, zer moduz? Eserita dagoenak heldu berria denaren besoetan orbain handi eta itsusi batzuk ikusi ditu, zer gertatu zain, neska, eta besteak begirada ibaiko ur gardenetara zuzentzen du, eskilaretan behera erori naiz. Berrero? Harriturik dago eguzkitan goxo-goxo dagoena, orain astebete ere erori zinen, ez? Bai, badakizu, oso baldarra naiz, eta malkoak erortzen zaizkio masailetan behera, eta berrero etorri den bidetik alde egiten du, korrika, bere umea besoetan duela.

Besoak orbainez josita dituen emakumea ate batetik sartu da, umea besoetan duela. Haurra lurrean jolasten utzi, masailetakoa malkoak lehortu eta afaria prestatzen hasi da, noizean behin, artega, atera begiratzen duen bitartean.

Apustua irabazi duen mutikoak bularra harrotasunez lehertzeaz dauka eta ezin ditu patriketan sartu irabazi dituen kanika, harri eta gainerako altxor guztiak, eta batzuk eskuan dituela etorri da etxeraino. Bere anaia txikia lurrean jolasten ikusi du, ama sukaldean izango da ziur aski. Burua atearen zirrikitutik sartuz kaixo ama esan du, eta pitxer puskatuaren zatiak ikusi ditu zaramontzian, eta gaizki sentitu da oso, amak pitxerra asko maite zuela ondo

asko zekielako. Ama, asko sentitzen dut, pitxerra apurtuko nuela jakin izan banu, esatera doa, barkamena eskatu nahi du, baina poltsikoetan ezin kabiturik dauzkan guztiez, eta batez ere lagunen miresmen aurpegiez oroitu da eta damua desagertu zaio, beno, barkamena eskatzearekin pitxerra ez da konponduko.

Neska gaztea alai eta zorionsu doa kalean zehar, irribarrea ezpainetatik kendu ezinik. Etxera sartu eta sukalderaino joan da korrika, ama, azkenean, berarekin ezkontzeko eskatu dit. Besarkada eman dionean amak zoriondu egin du, baina ubelduak oso minberak ditu oraindik eta segituan aldendu behar izan du bere alabaren besoetatik. Zorionak, maitea, bihotz-bihotzez. Afaria segituan egongo da prest, bitartean zainduko duzu zure anaia? Ez, ama, orain ezin dut, laguneri kontatu behar diet hau, afaltzeko itzuliko naiz. Azkar itzuli, maitea, eta alabarekin batera desagertu egin zaio ezpainetan agertutako irribarrea.

Eta besoak orbainez beteta dituen emakumea bakarrik gelditu da berriro sukaldean, begiak orain labean, orain egongelan dagoen seme gaztearengan dituela, eta bidearen erdian zaramontzian agertzen diren pitxer zatitxoei begiratu die instant batez, eta errezatzen hasi da, Ave María Purísima, sin pecado concebida, espainolez, beharbada herriko parrokoak ere halaxe egiten duelako, beharbada bere hizkuntzan errezatzean inoiz erantzunik jaso ez delako.

Meatzaria etxe bateko ataritik barrena sartu da, eta zikinkeriak azpimarkatu egin ditu bere irribarreak erakutsi dituen hortz ederrak. Zer, afaria prest egongo da, ez? Goseak amorratzen nago. Egongelan semea ikusi du, bakarrik, lurrean jolasten, eta sukaldera begiratu du. Oraindik

apur bat falta zaio, baina segituan hasiko gara afaltzen, lasai. Gizonak muturra okertzen du, badakizu ez zaidala gustatzen zain egotea. Bai, maitea, badakit, barkatu, asko sentitzen dut, esaten du, hitz totalka, emakumeak, eta burua jaitsi du apur bat.

Azkenean emakumeak denak mahaira esan du, baina badaki denak ez direla etorriko, alaba ez baita oraidik itzuli. Aita-semeak azaldu dira, eta aita zerbait ari zaio kontatzen semeari, eta hau barrez lehertzen ari da. Amak gauzak oso astiro eramaten ditu mahaira, baina alferrik da, neska ez da agertzen, eta aitak kopeta iluntzen du, non dago zure alaba hori? Eta emakumeak ez daki eskuekin zer egin, urduri mugitzen ditu batera eta bestera eta azkenean irribarre egiten du, ziur aski berak esatea nahiago zukeen, baina nik kontatu beharko dizuet, ezkontzekotan da, eta lagunei kontatzera joan da arrapaladan. Mahaian eseritako aita-semeen begiak zabaldu egiten dira, benetan? Zer ondo, esan du semeak, eta aita armairura abiatu da, hau ospatu egin behar dugu, ez da horrelakorik egunero gertatzen, eseri zu ere eta egin dezagun topa.

Gaua oso aurreratua dago alaba agertu denerako, oraindik pozik, irribarrea ezpainetan dantzan duela. Senar-emazteak sukaldean zain daude, eta irribarre egiten diote alabari, zorionak, maitea. Hau ospatu nahiko nuke, esan dio aitak goxoki laztanduz, baina ni oso nekatua nago, ohera goaz gu biok.

Bakoitza bere gelara sartu da, kanpoan ez da zaratarik txikiena ere entzuten. Neskak gozo hartu du ohea gaueko lasaitasunean, eta gizonak atea itxi du emaztea gelara sartu ondoren. Zuzen begiratu dio, eta txistua bota dio aurpegi-
ra, urdanga zikina, ez dakizu familia zaintzen ere, auskalo non ibili den zure alaba ordu hauek arte.

Eguna esnatzearekin batera, gizonezkoak lanera abiatu dira, eta orain emakumeak, zaharrak eta umeak bakarrik ikusten dira kalean. Emakume bat, haurra besoetan duela, ate batean deika ari da. Piskanaka sendatzen ari diren ubelduz jositako beso bat ikusi du lehenengo, eta gero emakumearen aurpegia agertu zaio. Odoldurik dauka kopetaren goiko alde eta musuzapi batez garbitzen saiatzen ari da. Ondo baldarra naun, neska. Lurrean zeuden trapu batzuekin estropozu egin eta ohearen ertza jo ez dinat ba burua-ekin.. Eta odola lehortzeko aitzakiaz, masailan behera doakion negar tanta jaso du musuzapiaz.

PROSA. B maila

BBBko 1. eta 2. kurtsoa,
LHko 1. gradua eta
IEEko 1. zikloa

Hogei hilotz

Miren Salaberria Eguzkiza
Pasaia-Lezo lizeoa
Pasaia

Hemen, itsaso azpian, bakardadean, ezer ahoratu ezinik heriotzaren ateetan, egin dudana damu naiz. Jainkoak badaki ene samina handia dela eta barkamena eskatu beharrean nagoela, baina heriotzak bere ateak zabaldu artean, hemen egonen naiz azken hitzak papereratu eta ene bizitza xumearen une alaiak gogoratu nahian. Orain, oroitzapen txarrenak datozkit burura, baina zuk, noizbait paper zaharkitu hauek aurkituko dituzunak, badakizu bizitza luzea dela eta gauza guztietarako astia badela: bai negar egiteko eta baita une goxoetarako ere.

Oraintxe datorkit gogora, zenbait lerrotako tartea ondo merezia duen nire bizitzako arorik esanguratsuenak: Aritzondoko azitia ezagutu nuenekoa.

Esan beharra daukat, neure burua kristau oso-osotzat badut ere, ezinezkoa egin zitzaidala azti horren kuraia eta bixitasuna ez neureganatzea. Apaizak, pulpitotik, deabruaren oinordeko zirela ihardetsiz hamaika aldiz gaitzesten bazituen ere, ni Judas gaiztoaren moduan jokatzeko hasi nintzen kristau leiala nintzela ahantziz. Hasieran, laku ondoan topatzen nuenean soilik mintzatu ohi ginen. Gerora, aldiz, akelarre, basajaun eta lamien mundura kate-

atuta gelditu nintzenean, ezinezkoa izan zitzaidan emakume harekin ezikusiarrena egitea.

Estraineko aldiz hamairu urte inguru nituenean ikusi genuen elkar. Ni, perretxiko bila nindoan basora, edo, hobeto esanda, hori aipatu nion ene behin betiko jauna zen Don Felipe apezpikuari. Egia esan, bazkaltzeko ordua zela eta izugarrizko tripazorriak egiten hasia nintzen, eta lapurreta txiki horiek aitortegian aitor zitezkeenez... Zuk, orri zaharrok irakurriko dituzunak, badakizu urdailak eskatzen duenean, eman beste irtenbiderik ez dela izaten.

Lehenengoz, uste on osoz gerturatu zitzaidan:

- Zertara etorri zara hona, mutil gazte?
- Maiatzeko xixen bila.
- Tira, ez esan halako gezurrik eta eseri hemen, neure alboan.

Emakumea, erabat zaharkitua berau, nabaria zen asko bizitakoa zela. Otso begiak zeuzkan, hotzak, begirada batean ikaratzeko modukoak. Ilea hain zuen luzea, non neureak eta bost jokatuko nituzke sekula moztu gabea zuela. Aurpegia, urteen poderioz, zimurrez josia eta aho ondoan gaizki sendaturiko zauri bat, txirotasunaren adierazgarri. Nabaria zen bizitzako egoera gogorrenak izan zituela ikasgai urte haietan zehar. Gehien txunditu ninduena, bere hortzadura izan zen: hortz eta hagin guztiak mantendu ezezik, oso luzeak eta gogorrak zeuzkan, azeriarenak bailiran.

Orduan, begirada bakar batez nire senak zioena egiaz-tatu ahal izan nuen. Ondoko herri txiki batean jaioa, gurasoak nekazari xumeak izanagatik ere, gogor ekin zion irakurtzen eta idazten ikasteari bere neskame lanetatik kanpo. Oso arraroa egiten zitzaidan emakume hark idatzi eta ira-

kurtzen zekiela pentsatzeak, hori aberatsen kontua baita. Nahiz eta niri, apaizaren gogoko nintzelako edo, erakutsiko zidatela esan.

– Hara! Begizta ezazu une batez lakua – erran zidan.

Ustekabean, gizaki baten islada nekusan uretan, arrainaren antzera dantzan. Gerritik gora biluzik, ilea hanketaino jausten zitzaiola, lamia bat zen zalantza izpirik ere ez nuen. Gizaki edo dena delako hori ikusi nuen unean, nire harridura liluraren adinakoa izan zela esan dezaket. Seko gelditu nintzen izaki hari so, bere edertasunak, ingurune guztia alaitzen zuela zirudielarik. Artean, alboan nuen emakume hark naturaltasun osoz jokutzen jarraitu zuen; jazotakoari garrantzi handiegia eman barik, lakuan murgildurik zegoen izakia emakume arrunt bat bailitzan.

– Lasai mutil, hemen ordu pare batez egongo da eta ordurako ez zaizu hain bitxia egingo.

Nik, arnasarik ere hartu barik, hantxe geratu behar, beldurrak aidean, korrika aldegitoko kristoren gura banuen ere. Ez zen oso hiztuna nonbait, eta kantuan aritu zen desagertu arteko tarte guztian. Azkenik, aztiari gerturatu zitzaien eta elkarrizketa motz bat amaitu ondoren, agertu bezala desagertu zen uraren sakonean, galdu zen ustea eduki nuelarik. Baina ez, gizaki bitxi hura urak irentsi bazuen ere, ez zen galduko, ziurtasun osoa nuen.

Gauean ohizko biltzarra zutela eta, mendi tontorrera hurbiltzeko proposatu zidan orduan aztiak. Nik, zeharo leloturik oraindik ere, ia pentsatu gabe baietza eman nion eta, gauzak honela, emakume hura, ni edozein adiskide bezala hartuz, bere bizitzari buruz hizketan hasi zitzaidan. Txiki-txikitandik gerrako mixerian hazitakoa, nabarmena

zen aro garratz horrek izugarrizko arrastoa utzi zuela bere baitan bizitza osorako.

– Horrelakoek samina besterik ez dute ekartzen, mutiko –zioen– beti gora egin nahirik, erori egiten gara.

Argi asko ikus zitekeen gudenganako zeukan mesprezioa. Solasean denbora dexente igaro ondoren, argitasuna, egunero bezala, aldentzen joan zen, oharkabea, gauak dena ilundu zuen arte. Etxeratzeko ordua zela eta, aztia agurtu ostean bide ilunetan barrena abiatu nintzen, ene burua hamaika fantasiaren gune zelarik. Zuhaitzez inguratuturik, ilargia lagun, kantari nindoan, hots baxu bat entzun nuenean. Xelebrea iruditu zitzaidan, izan ere, egoera bitxi hura eleberri baten antzekoa bihurtzen ari zen, kosta egiten baitzitzaidan dena begiztatu ahal izan arren, onartzea. Ezerk txundiaraziko ez ninduelakoan, giza ahots bat aditu nuen han inguruan, baina leku guztiak miatu banituen ere zokorik zoko, han ez zen inor; ni, ilargia eta zuhaitz mordoa izan ezik. Egoerak bultzaturik edo, barre egiteari ekin behar negarrez ez hastearren, baina barreak ozenagoak ziren heinean, ahotsa ere ozenagoa zen.

Azkenik, zuhaitz baten azpian eseri eta orduantxe argitu nuen misterioa: haritza zen hizketan ari zena. Bai, zuri diotsut, paper hauen irakurle izango zarenari, ondoan nuen zuhaitzak hitz egin zidan, mugi nendin aholkatuz, gehiegi berandutu baino lehen. Ordurako, ziztu bizian aldegin nintzen handik, helburutzat Don Feliperi aitzakia on bat jartzea nuela. Iristerakoan, lau gezur txar besterik bururatu ez, eta izugarrizko jipoia jaso nuen. Dena hor bukatu izan balitz, gaitzerdi, baina estualdi hura igaro ostean, barruak, mendira joatera bultzatzen ninduen. Gainera, autojustifikaziorako aitzakia txar bat bada ere, kristau onak ezin du emandako hitzik hautsi.

Aitzakia moduan, Don Feliperi aurretiaz errandako lau gezur sinesgaitz horiek baino arrazoi hobeak azaldu ostean, baserritik aldegin nuen, isil-isilik, inolako arrastorik ez uzteko asmotan. Izan ere, ez zen nire desioa inolaz ere gaintzeko jende guztiak zertara nindoan jakitea. Zerua, izarrez josia, oso ederra zen gau hartan eta ilargiak bidea argitzen zuenez, ez nuen iristeko arazo handirik eduki. Bidean, Linazatarren gaztelua behatu nuen, soldaduz betea, arraroa bazen ere. Zelatan zebiltzan burutazioa eduki nuen, baina noren zelatan? Aukera guztiak banan-banan baztertzen nindoan heinean, Josu basajaunarena handitzen zihoan. Bai, beraren zelatan ari ziren ene ustetan. Azken aldian aztoratua baitzebilen herri guztia basajaun honen ibilerak zirela medio. Batzuek umeak harrapatzen zituela zioten, bere etxolara iristerakoan jateko seguruenik, eta hau nahikoa izan ez nonbait eta edozein baserritara hurbildu eta edozer lapurtzeko gai zen. Gurera ere heldu izan zen noiz edo noiz, eta sekula ene bizitza guztian ikusiriko gizonik beldurgarriena zela esan beharrean nago: garaia, sendoa eta mutur zitalekoa. Nork egingo zion aurre halako munstroari soldadaduez gain?

Dena den, hura ez zen nire kezkarik behinena une hartan. Arratsaldeko haritzaren gertaera oraindik gogoan nuela, berriro ere dei egin zidan sentrazioa eduki eta hurre-ratu egin nintzaion. Lurrean botea balego bezala, zur zati bat begiztatu nuen, adarretik hausteke oraindik. Bertan, honako ohar hau irakurtzeko aukera izan nuen:

Abuztuaren 16an, itsasontziz iritsiko dira, gauerdian.

Buruari jira eta buelta aritu arren, ezin inolako zentzurik aurkitu oharrari. Atsekabeturik nengoen eta, mendira iristerakoan, egokiena aztiari ematea izango zela erabaki

nuen. Gauzak honela, biltzarrera batu eta han, oso interesgarriak iruditu zitzaizkidan kondairak entzuten jardun genuen; bakan batzuk gerra denborakoak ziren. Emakume zahar haren ahotsari ezta zerionez, kontakizunak izugarrizko bixitasuna hartzen zuen; ondorioz, amaierarainoko jakinmina sortarazten zuen. Kondairekin amaitutakoan, sua piztu eta dantzan hasi ziren denak, suaren gainetik ea nork jauzi handiena eman. Akelarre baten aurrean nengoen, bai jauna, Euskal Herrian hain maiz egiten ziren ospakizun haietako batean hain zuzen ere. Bai, zuk jadanik jakingo duzun bezala, elizaren gogoz kontra, baina akelarreak egin egiten zirela esan behar dizut. Handik aurrera, partaide izan bainintzen ni neu ere, esan beharra daukat ez ginela lizunkeriatan ibiltzen, ezta oilo lapurretan ere, eta are gutxiago deabrua erakartzen. Jakinaren gainean nengoen, banekien egiten nuena onartezina zela eta ez nuela Jaungoikoaren barkamenik merezi, baina elizak ere gezur franko esaten zituen, nik ordurarte hainbesteko faltsukeriarren berririk ez banuen ere.

Akelarre haietan adin guztietako jendea biltzen zen eta norbait gaixotuz gero, Jaungoikoa lagun genuela, aztiak sendatu egiten zuen, baina ez, han ez zen lizunkeriarik. Lehen aldi hartan, aurkituriko egur zatia aztiari eman ostean, mezua azal ziezadan eskatu eta ene jakinmina asetzea lortu zuen:

– Hau haritz zaharrak eman dizu. Hark hemen gertatzen den gauza ororen berri daki, eta gu aukeratu gaitu herrialde xume hau burgesen handikeriatik babesteko. Jakinen duzun bezala, borroka latz bat hastear dago gure herrian, sortzailea erregea lur gehiagoren jabe izateko gura hutsa delarik, baina ez, ez diegu geure arbasoen lurretan beren oin zikinekin dena ustel dezaten utziko. Geureari

eutsi egin behar diogu eta horretarako, piratek itsasoz ekarriko dituzten armak harrapatu eta deuseztu beharrean gaude. Arma horiek soldaduek jaso ezkeru, akabo! Gureak egin du! Lurralde hau eta gu geu ere hondamenerako bi-dean gara.

Handik aurrera, jende talde haren asmoak txarrak ez zirelako edo, aztiarekin maiz biltzen nintzen, bai solasera-ko edo bai armen kontuaz mintzatzeko. Pixkanaka, abuztuaren 16a bitarteko egunak ahituz zihoazen heinean, nik neuk ere zeregin hartan muturra ederki sartua nuen, armak geureganatzearekin tematuta. Azkenik, eguna iritsi eta gutako asko, porturantz hurreratu ginen, tinko, adoretzu, etsaiari aurre egiteko prest eta unea iritsiz gero, bizitzari agur esateko inolako beldur barik. Dena gure lurren alde, ez geunden prest handiuste horiei gurea ere bazena oparitzeko, inola ere ez!

Piraten itsasontzia ager zekigun desio nuen une hartan beste ezereen gaintetik, eta ene hitzak Jainkoak entzun balizkit bezala, hantxe ikusi genuen, gugana gerturatzeko. Buruak argi, bihotzak taupada bizian eta denok helburu bakar batekin, erasoari ekin genion piratei ezertarako beta-rik utzi barik. Esan beharra dizut, irakurle izango zaitudan horri, gauzak nahi ez bezala atera zitzaizkigula, eta gureta-ko hiru hilik suertatu zirela. Zu, irakurle, lekuko zaitudala, benetan diotsut, bizitzaren azkenetan, haietako bi hiltzen utzi nituela nire bizitza berekoi baten moduan salbatzearen. Haiiek, eta zuri diotsut, irakurle, soilik haiek merezi dute zeruratuak izatea mundu zerri honetan.

Hondamenaren ondorioz etsipenak jota geunden, geure lurak nola zapaltzen zituzten ikusiaz. Une haietako ezintasunak, han, isilpean apezpikuaren ondoan egotera

behartzen ninduen, jadanik galdua baikenuen erronka, eta honekin geure izana. Lehen eraso baina lehen hiruzpalau egun igaro ziren eta denbora luze hartan guztian, aztiarekin bildu nintzen lakuan, beti bezala lamia lagun.

– Galdu egin dugu, galdu! Akabo gure lurak eta gure biltzarrak. Hasieraren bukaera da, Josetxo! Bukatu dira barreak, bukatu solasaldiak, bukatu zorientasuna eta, garrantzitsuena, kendu eginen digute gizaki orok daukan bizitzeko eskubidea. Gure heriotza gogorra izango da, lur honen bukaera bezainbestekoa, eta Jainkoak badaki ez naitzela gezurretan ari, hau lehendik ere ezaguna baitugu.

Nabaria zen emakume haren samina, baina baita hala-koetan erakutsi eta kutsatzen zuen kemena ere. Azti hark esan bezala, armak gazteluraino iritsi ziren eta soldaduak erasoan zain zeuden, kidetzat eliza bera zutelarik. Irakurle, gerora etorri ziren egunak ez dizkiot inori desiratzen, ezta zuri ere, handiuste nazkagarri bat izan bazaitezke ere. Dozenaka soldadu iritsi ziren beren zaldietan ezpatak jasoak zituztela, borroka eske, eta esan beharrik ez dago, borroka izan zuten. Oraindik ere oroitu orduko dardarka jartzen nauten irudiak ditut betiko nire oroitzapenean itsatsirik. Etxe guztiak erre zituzten, baita barruan harrapaturik geratutako gizakiak ere. Suaren garretan kateaturik geratu zirenen oihuak entzun genituen, oihu mingarriak, heriotzaren adierazle garbiak. Abereak lapurtu zituzten, umeak akabatu, emakumeak bortxatu, haritzik zaharrenak moztu: gure herriaren mendetako historiaren orojakile bakarrak. Hau guztia nahikoa ez nonbait, eta lakuko lamia ere hil egin zuten. Gauzak honela, izua nagusitu zen egun gutxiren buruan gure herrian. Kaleak triste, jendearen zotinak aditzen ziren, behien marruak, eta noiz edo noiz, umeren baten negarra. Gu guztiongan isladatzen zen beldurra, ego-

era harekiko inpotentzia. Gure herrian erabat finkatuta zeuden sustraiak puskatu egin zituzten, hainbeste mendetako lana, egun gutxi batzuetan ezerezean gelditu zen.

Zikinkeria eta txirotasunaren ondorioz, izurritea iritsi zen gure herrira, izaki bizidun niminoena ere berarekin arrastaka eramán zuelarik. Erregeak akelarreetako sorginen errua zela segurtasun osoz baieztatu ostean, elizak, izurritearen errua aztiari leporatu zion eta, ondorioz, armada osoa mendirantz abiatu zen, Don Felipe buru zuela. Mendira heldu zirenean, biltzarrean bildurik geunden eta hantxe eman behar izan genion elkarri azken agurra, arroken aurka deusezten diren olatuen antzera, hantxe suntsituko baikintuzten gu gizaki gupidagabe haiek. Don Felipe, ni ikusi orduko, orroeka hasi zen, Satanasen oinordekoekin bildu nintzela esanez, eta traizioaren ordaina jasoko nuela ziurtzat eman zuen.

Eta han, denak babes barik aurkitzen ginela aprobetxatuz, gutako bakoitza banaka hartu eta eramán egin zuten, ni izan ezik. Batzuei aizkoraz burua moztu zieten, besteak sutan erre zituzten izugarrizko oihuen artean. Aztia bortxatu egin zuten lehenik, gero jipoitu eta, azkenik, erre. Gure artetik eramán egin zuten, baina nik banekien haren arima, zati txiki-txikietan banatu zela, eta zati haietako bakoitza guri egokitu zitzaigula. Honela, su garretan oraindik ere eliza madarikatzen jardun zuen bitartean, emakume haren aurpegian izugarrizko kemena nabari zitekeen. Oihu eta negarren artean amaitu zen dena, hogeitaz hilotzekin, denen aurpegietan sufrimendu keinuak agerian. Lurralde haien alde egiteagatik jasotako ordaina izan zen, herriko burgesia bihozgabearen eskutik jaso.


Une honetan, tristurak eta gorrotoak jota, ene sentimenduak papereratu nahian, ni neu ere azken ordurako

prestatzen ari naiz. Orain, haserreturik, axota eskuan dudala, aurretiaz esandakoa berridatzi nahi dut: ez, nik ez dut bekaturik egin. Bekatua al da norberaren sorterrria defendatzea eta ohitura zaharrei jarraitzea? Dena dela, tristura handiagoa ematen dit herria deusezturik dagoela jakiteak, hil eginen naizela baieztatzeak baino. Gizakia ez da inoiz desagertuko, baina guk gure izana galdua dugu. Non dira basajaunak? Non lamiak? Non haritz zaharrak? Jadanik inon ez.

Ba al du gizonak bere aginteaz horrela baliatzeko eskubiderik? Jolas al daiteke modu horretan herri baten iragana eta geroarekin? Gizakia, judutar nahiz kristau, gizon nahiz emakume, gizakia da azken batean, ala... ez?

Azken bost minutuak

Uxue Apaolaza Larrea
J.M. Barandiaran lizeoa
Hernani



1 FRANK

Mantso, oso mantso hitz egin zuen. Hitz bakoitza, hots bakoitza ongi ahoskatuz. Aurpegiko zimur txikiena ere mugitzen zitzaion zerbait esaten zuen aldiro.

Esaldiak amaitzean eskua pasatzen zuen bere buru ilegabearen gainetik. Arnasa sakon eta erritmikoki hartzen zuen, kezkatuta balego bezala.

Eskua poltsikoan sartu eta zerbait bilatu nahian zebilen. Azkenean Winston pakete bat atera zuen. Zigarro bat ezpainen artean hartu eta bere urrezko metxeroaz piztu zuen. Hautsontzi ttiki urdin bat hartu zuen eta piano handiaren gainean utzi. Pianoaren aurrean zegoen taburete batean eseri zen eta, tapa altxatzearekin batera, Frank teklak laztantzen hasi zen.

Begiak itxi zituen eta behatzak bakarrik zebilzkion, amets egitera ere irits zitekeen. Zeruan halaxe sentitu behar zela bururatu zitzaion Frank-i.

Hautsontzitik ateratzen zen keak gela osoa bete zuen eta Frank-en irudia ia ikustezina zen logelaren beste aldeko sofa gorrian eserita zeuden bere lagunentzat.

Abestia bukatzearekin batera itzali zen hautsontziko zigarroa, eta baita Frank-en ametsa ere.

2 MARY

Bere ohe bigunean zegoen. Mugitzeak ere neke handia eskatzen zion. Begiak itxita zituen eta ametsetan ari zen, baina ez zegoen lo. Bazekien jaikitzeako ordua zela eta ohean jarraitzen bazuen berandu iritsiko zela Frank-ekin zuen zitara. Azkenean zita horrek ematen zion ezinegon desatseginak jaikiarazi zuen.

Ispiluaren aurrean jarri eta, bere ilea eta aurpegia ikustean, dutxa bat merezi zutela ohartu zen. Alabaina, berandu zen eta dutxan sartzeko ideiak ez zuen batere erakaritzen.

Mary, katuak bezala, oso poxpolina izan arren, uraren etsai amorratua ere bazen. Korrika batean jantzi zen. Usain txarra tapatu nahian, desodorante potea hustu zuen ia eta aurpegia makillaje merke batez estali ondoren, autobus-geltokirantz abiatu zen.

Hotz zegoen kalean eta Mary-ri kea ziruditen hats-hodeiak zerizkion ahotik. Beste bi pertsona zeuden autobus-geltokian: emakume edadetu bat eta mutil gazte bat.

Bazetorren autobusa eta bonobus zahar bat atera zuen Mary-k galtzetako poltsiko batetik. Tiketa sartzeko zain zegoela, orrien zimurak disimulatu nahiz edo, ongi tiratu zuen bonobusa bere hatz fin eta luzeekin. Sartu eta atzean eseri zen andre gazte baten ondoan.

Mary-k goitik behera aztertu zuen, baina sudurrean zuen bikorrean gelditu zitzaizkion begiak. Izugarria zen,

hain polita zen neskaren aurpegia eta hain handia bikor erraldoi hura!

Oharkabea, bikor hari begira, Frank-ekin zita egin zuen kafetegira heldu zen eta salto batean jaitsi zen autobusetik.

3 FRANK

Berriz lagunengana hurbildu zen. Irribarre behartu batez, zer iruditu zitzaion galdetu zuen, baina bazekien ez zutela abesti hura behar adina estimatzen.

Lagunak buruarekin baietz egin eta isildu egin ziren. Isiltasun paregabea jabetu zen gelaz, ez zuten ezer elkarri kontatzeko, zaharrak ziren eta ez ziren etxetik ateratzen.

Denak familia aberatsetan bizi ziren eta, Frank-ek zioen bezala, beren bizitza diru-enpatxua izan zen: jaio zirenetik dirutza handia izan zuten eta ez zuten sekula lanik egin behar izan.

Frank-ek, senak bultzatuta bezala, paretan zegoen ordulariari begirada azkarra bota zion. Nola ahaztu zitzaion Mary-rekin zuen zita?

Aulkitik altxa eta hirurogeita hamasei urteko gizon batek ahal duen bezain azkar atera zen gelako ate erraldotik. Eskilarak korrika jaitsi zituen eta bizpahirutan erortzeko zorian izan zen.

Aterkia hartzea ez zitzaion burutik pasatu ere egin eta, hala ere, lasai asko zihoan kalearen erdi-erditik blai egin da. Momentu batez gazte izatea gustatuko litzaiokeela pentsatu zuen, korrika hasi eta garaiz iristeko. Arnasestuka eta mantso-mantso, baina beti aurrera, euripean zihoan.

4 MARY

Mary-ren berokia blai eginda zegoen autobusetik kafetegi-rako bidean botatako euri-jasaren erruz. Mahai baten aurrean eseri zen eta berokia kentzeari ekin zion. Leihotik begira jarri zen. Eguraldi hark ez zion alaitasun berezirik ematen.

Bere gogoeta sakonenetan murgilduta zegoen unean, txapel irrigarri bat zeraman gazte zurbil bat jarri zen mahaiaren aurrean, boligrafoa eta koadernotxo bat eskuan zituela. Mary-k goitik behera begiratu zion, autobuseko emakumeari bezala, eta isilik geratu zen hari begira.

Zer hartuko zuen galdetu zionean, kASFenea eta crois-sant bat eskatu zituen ahots fin eta lotsati batez. Bere aho-tsak ez zuen bere izakerarekin bat egiten, lekuz edo gor-putzez nahastu zela zirudien.

Kafetegiaren sabaian hamar fluoreszente handi zeu-den. Lurraren eta pareren kolore zuriak fluoreszenteen argia indartzen zuen. Bere bizitzan ere argitasun hura eduki nahi lukeela bururatu zitzaion Mary-ri.

Frank-ek bost minutu barru iritsi behar zuen. Ordula-riaren tiki-taka garbi entzun zitekeen kafetegi osoan. Sabaian ere hiru haizagailu zebiltzan bueltaka. Izugarriak ziren eta Mary pentsatzen jarri zen zer iskanbila sortuko litzatekeen bere burua haizagailu baten hegalean artean sar-tuko balu. Baina ez zuen probarik egin, ez baitzuen kafete-giko jendearen begitartea ikusteko aukerarik izango.

5 FRANK

Frank kabina batean sartu zen kafetegira dei egiteko asmoz. Ez zen ongi aurkitzen, euriak kalte egin zion.

Zenbakiak markatzen zituen heinean, bero handiagoa zuen eta bere gorputzak gero eta gehiago pisatzen zuen.

Telefonoaz bestalde kafetegiko zerbitzaria garrasika ari zen, baina Frank-ek zurrumurru isil bat besterik ez zuen entzuten eta, telefonoa eskutik erori zitzaionean, ez zen ohartu ere egin. Kabina hura txikiegia zen, sutan zegoen Frank-en kopeta, sukarra zuen dudarik gabe.

Klaustrofobiaren eragina izango zela pentsatu zuen Frank-ek, txikitatik izan zuen gaixotasun hori. Horregatik ziren hain handiak bere etxeko paretak. Baina ez, ez zuen egoera hartan pentsatzeko gogorik eta horrexegatik ateratzen zituen hain ondorio azkarrak. Ez zen klaustrofobiagatik izango.

Bere gorputza gero eta pisutsuagoa zen...

6 MARY

Kafesnearen usainak atera zuen Mary bere pentsamendu izugarrietatik. Izan ere, Mary-ri izugarriak iruditzen zitzaizkion bere azken burutapenak. Baina ongi pentsatuz gero, barregarri edo atseginak ere bazirela ohartu zen.

Bere burua xerra finetan zatitu ondoren hilik egongo zen eta nork jakin, agian hil ondoren hobeto biziko zen. Nahasgarria zen hura guztia: bizitza hobea izan zezakeen bizitza galdu ondoren edukiko zuen bizitzan!

Begiak itxi zituen. Egun hartan gehiegi ari zen pentsatzen gauza onerako eta kafesnea edateari ekin zion. Bere liseri-aparatuak beteko zuen prozesua imajinatzen saiatu zen kafesnea hestegorrian behera zihoakion bitartean.

Zerbitzaria telefonotik builaka ari zen. Telefonoaz bestalde zegoena gor samarra zela pentsatu zuen Mary-k, edo bestela, jendea zirikatzen ibiltzen diren ume horietako bat izango zen.

Kafesnea amaitu zen. Azken trago luzea hartzearekin batera, katiluaren ipurdi hutsari begira gelditu zen.

Zuria zen. Besterik gabe zuria.

Ez zuen marrazkirik, ez zuen letrarik, ez zuen ezer.

Ez. Zuria zen besterik gabe, beste katiluena bezalakoa. Bere ondoko mahaietan zegoen andre dotoreak esku artean zuen katiluaren ipurdia bezalakoa. Mostradorean kafez zikintzeko zain zeuden katiluen ipurdiak bezalakoa. Tabernako armairuetan zeuden katilu guztien ipurdia bezain zuria.

Mary-ri bere bizitza ere halakoxea zela iruditu zitzaion. Ez zuen, katiluen ipurdien antzera, ez marrazki ez apaingarririk.

Zuria, akatsik gabea, baina zuria. Agian bere bizitzaren akats nagusia akatsik ez izatea zen.

Bai, bere bizitza zuria eta arrunta zen, katilu haren ipurdia bezain zuria eta arrunta.

7 FRANK

Mugitzen saiatu zen eta ia lurrera erori zen. Sofa hura oso estua zen. Kordea galdu eta hara eramane zutela pentsatu zuen Frank-ek. Emakume baten etxean zegoen. Andrea berari begira zegoen. Berokia nola kentzen zuen ikusi zuen.

Berokia utzi eta beregana hurbildu zen pauso man-
tsoak emanaz eta gerria alde batetik bestera leun higituz.
Biziki erakartzen zuen emakume hark. Frank-ek bezala
hirurogeita hamasei bat urte izango zituen.

Emakumea alkandorako botoi horiak askatzen ari zen
eta bere sujetadore beltza bistan gelditu zen. Bular zoraga-
rriak zituen bere edaderako. Biribilak eta gogorrak.

Ez zuen ezer egin emakumea bere gainean etzan eta
musu eman zionean. Bularrak laztandu zizkion, besterik
gabe.

Mary-z oroitu zen bat-batean. Salto batez altxatu eta
emakume hura lurrera erori zen. Ez zuen ezagutzen. Itxura
barregarria zuen lurrean etzanda, ia erroparik gabe eta
harridura-aurpegi harekin. Baina Frank-ek joan beharra
zuen.

Lasterka irten zen etxe hartatik eta, harrigarria, kafete-
gia kalearen beste aldean zegoela ohartu zen. Bere pare-
parean. Bihotzaren taupadak entzuten zituen eta jendeak
ere entzuten ote zituen galdetu zion bere buruari. Kalea
gurutzatu eta atearen parean jarri zen.

Arnasa sakon hartu eta, begiak itxita, ateari bultza egin
zion. Baina ez zen mugitu. Arnasa moztu zitzaion Frank-i.
Itxita ote zegoen ba? Ezin zuen sinetsi. Non zegoen Mary?

Lasaitasun ederra hartu zuen inguruko gizon batek
atea irekitzeko bultza ez, tira egin behar zela esan zionean.

8 MARY ETA FRANK

Mary ateari begira zegoen unean, gizon garai bat sartu zen
kafetegian. Sendoa, baina zahar samarra. Hala ere, bidal-

tzen zizkion eskutitzak zoragarriak ziren. Dударik gabe, Frank zen.

Mary-k besoa altxatu zuen. Frank harengana hurbildu eta ondoan eseri zen. Elkarri begira zeuden eta Mary oso urduri ari zen jartzen. Zerbait esan behar zuen, bestela bertan ziplo eroriko zen kordea galduta:

– Kaixo, Mary naiz. Ez nik aukeratu nuelako, baizik nire gurasoek hala nahi izan zutelako. Nire bizitzako gauza gehienak bezala, nire gurasoek aukeratu zidaten izena ere. Bizitzea ere bai, inork ez zidan galdetu bizi nahi nuen ala ez. Noski, hori galdetzeko bizirik egon behar da, baina galdetu izan balidate, agian ezetz esango nukeen. Beno, Mary dut izena, nire gurasoek hala nahi izan zutelako.

– Zein arraroa zaren! –hitz gutxiko gizona zen Frank.

Mary-k pentsatu zuen denbora luzea zeramala pertsona batekin hitz egin gabe eta botatako hitz-jarioagatik barkamena eskatzera zihoanean, Frank-ek musu bero batez isildu zuen hasi gabeko esaldia.

Begiak itxi zituzten biek eta modu hartan pasa zituzten beren bizitzako azken bost minutuak.

Bonba batek eztanda egin zuen kafetegian.

Zerbitzaria alferrik ibili zen mostradorean pilatutako gantza garbitu nahian, gero, bere odola izan baitzen mostradorea zikindu zuena...

Bakarrik

Maddi Garmendia Irizar
Alkartasuna lizeoa
Beasain

Orduan hasi da irriaren bozgorailuetatik albisteen ondoren jartzen den musika irteten. Ni, jadanik zerbait egiteko garaia badela eta egurrezko aulkitik altxa eta sukalderrantz abiatzen naiz. Eta han ikusten dut arratsaldean zintzilikatu behar nuen arropa piloa mahaiaren gainaldean ia saskitik gainezka.

"Badun garaia zerbait egiteko, neska, eta gutxienez zintzilika hitzan horko trapu horiek, ez dun gehiegizko lana izango eta" agintzen dit neure buruak. Eta ahora ogi kozkor bat sartu ondoren, saskia besapean harturik bideratzen naiz sukaldoko leihorantz. Saskia lurrean utzi eta leihoaren atea zabaltzen ditut, kanpoko aire freskoa nola etxeratzen den nabaritzuz.

Poltsatik pintza pare bat hartu eta hortzekin eusten ditut lehenengo jantzia hartu bitartean. Soken gainean etzan, zabaldu eta pintzekin lotzen dut azpiko kale ilunera eror ez dadin. Hurrengo arropekin berdin egiten dut, eta noizbehinka kalerantz jasotzen dut begirada, eta galeria ilun eta estu hark bat-bateko beldurra sortarazten dit.

Baina kalexka hau miatzen ari naizela, hara non ikusten ditudan kale amaieran eztabaida bero batean sarturik,

bi pertsona. Daukadan jakinminak belarriak adi-adi jartze-
ra bultzatzen nau, baina hala ere ezin dut garbi nabaritu
elkarrizketaren gaia edo zergatia. Etxean bakarrik bizi den
alargun batentzat kaleko edozein txutxumutxu nahikoa iza-
ten da jendea dantzari jartzeko, gauza batengatik edo bes-
teagatik. Eta noski, zerbaitez konturatzen baldin banaiz,
nik ere albistea lagunaren artean zabaldu beharko dut eta
besteen begirunea jasoko dudana zalantza izpirik ere ez dut.
Beraz, kaleko istiluaz konturatzeko, ia zintzilik jartzen
naiz leihoan. Itzalak hobeto ikusteko ahaleginetan nagoela,
bi pertsonen aurpegiak ezagutzera iritsi naiz. Bata herrita-
rra da, ondoko bizilagunaren anaia, uste dut; bestea, aldiz,
ezezaguna.

Ezezagunak bat-batean poltsikotik sekulako aiztoa ate-
ratzen du, besoa altxatu eta indartsu jaisten du behera
behin eta berriro, aurrean duena bertan akabatzeko. Kaleko
hormetan ikusten dira bi itzalak elkarrekin nahasten, ilun-
tasun eta argitasunezko jokoek pertsonen ekintzak argi eta
garbi erakutsiz. Labanaren punta zorrotza behin eta berriro
sartzen da aurrean duen gorputzean, berau minaren minez
okertzen eta oihuka ari den bitartean. Une bat beranduago,
bietako bat lurrera erortzen da eta bertan zerraldo geldit-
zen, bizirik gabe, arimarik babe, odolezko putzu-iturri.

Orduan, bestea, –nekearen ondorioz izango dela uste
dut– bera ere lurrean esertzen da, mespreziosz begiratu
aurreko zerraldoari, eta momentu batzuen buruan hortxe
gelditzen da. Nik aldiz, izaturik, nerbioak jota eta bizitze-
ko grinak bultzaturik, leihoa isten dut oso azkar, eta ahalik
eta hots gutxien sortzeko asmotan. Honetan nabilela eta
zalaparta guzti honen erdian, ahoa zabaltzen dut konturatu
gabe, eta hortzen artean nuen pintza hirugarren solairutik
behera amiltzen da. Hau gertatzean, gorputzak ez ditu

emandako aginduak betetzen, ez da egoeraz jabetzen, eta hortxe, geldi-geldi geratzen naiz, mugitzeke eta pintzaren ibilbidea begiradarekin jarraituz.

Lurrera iritsi den arte, denbora oso luzea egin zait, nahiz eta jakin benetan une batzuk besterik ez direla izan. Baina azkenik lurra ukitzera iristen da, baldosa hotzen gainera jauzi egin eta bertan gelditzen da. Honela, nahiz eta hotsa txikia izan, kalexkako isiltasuna urratzen dut, eta kale amaieraraino heltzen da, kalearen beste aldeko gizonarenganaino. Nik mugitu nahi dut, aldegin, baina oraindik ez dut lortzen gorputzak buruaren aginduak betetzea, eta ahalegin honetan nabilela, hiltzaileak begiak jaso eta nigantantz zuzentzen ditu.

Iluntasuna ia osoa izanda ere, bere begiek berezko argia dutela dirudi, eta garbi elkartzen dira geure begiradak gauaren bakardadean. Begi urdin eta hotz haiek berriz ere nire gorputza esnatu eta mugimenduan jartzen dute, eta segituan aurkitzen naiz berriro ere etxeko sukaldetan eta leihoa guztiz itxita. Hasieran zorabiatuko naizela iruditzen zait, mundua nire inguruan biraka dabilela ikusten dut, ni guztiaren ardatza izango banintz bezala. Baina mahaiaren izkina bati heldu eta hobeto sentitu arte itxaroten dut.

"Hauek ez ditun hire adineko jendeak ikusten dituen gauzak, ez jauna. Baina ez hadi tuntuna izan eta egizan zer-bait, Ertzantzari deitu behintzat!" eta nire senak dioena egitera bideratzen naiz pauso azkarretan. Pasiloa inoiz baino luzeagoa iruditzen zait, eta telefonoa sukaldetik hurbilago jarriko dudala hurrengoan pentsatzen dut.

088 zenbakiak gogoratzen ditut, iragarkiengatik eta, eta makinaren telebistako beste aldean gizona ahots lodi batek erantzuten dit. Arnasa sakon hartu eta gertatuta-

koaren, hau da, hilketaren berri ematen diot, ahalik eta labur eta hobekien. Ahotsak segituan datozela eta lasai egoteko esaten dit, ez larritzeko, eta ate eta leiho guztiak ondo itxita edukitzeko. Ez da beharrezkoa hau esatea, irtenbide eta sarrera guztiak aurretik istea pentsatuta bainuen. Beraz, helbidea eman eta momentuan hemen izango direla agindu dit, burua ez galtzeko, lasaitzeko bigarren aldiz ere.

Telefonoa eskegi eta pasiloan zintzilik dauden erretra-tuei begira jartzen naiz, zerbait egiteko edo. Bost marrazkik alaitzen dute alboetako hormen paper ilun eta zikina. Pentsakizun hauekin neure burua engainatzen saiatzen naiz, lasaitzen, ezer gertatu izan ez balitz bezala. Baina badakit ez duela ezertarako balio izango neure buruari gezurretan ibiltzeak, eta berriz ere sukaldera joan eta irratia pizten dut. Bat-batean, norbaitek sarrerako txirrina jo du, eta neure bihotza bularrean etengabe mugiarazten duen hotsak sekulako beldurra sortzen dit.

– Tirriiiiiin!

Fraileen arteko kontuak

Alexander García Aretxabaleta
Ondarroako B. institutua
Ondarroa

– ...bai, ba... nik, ontxe amatxurot bat, ontxerala gitxi atarabe, ezta zeñena bane usteot, fraie batena ero rala, kriston ona, mogoioi gusta gazta. Laakotzut. Fraie marikoi biren arteko roiuk. Bai ataztaxun kafe bi eta Wiston pakte bat.

* * *

– Nor? Hura? –diotso Jose Antoniok, Donemiliagako fraile batek, Juliani, Leirekoa den beste fraile bati, mutil altu, ihar, begi ilun-ilun eta moreno bategatik, aurreko jezarlekuan, gidariaren alboan inorekin hitzik egin gabe eta leihatilatik begira doanagatik, galdezka.

– Bai, horixe.

– Hori, Miel Anton Basterretxea Gandiaga, ez dut gehiegi ezagutzen, ia hitzik ere ez baitu egiten, koroan abesten du, oso ondo gainera, baina oso barnerakoia da eta ez du beharrezkoa ez den baino hitz gehiago egiten, monastegian denok ezagutzen dugu elkar, eta harekin honekin baino tratu gehiago duzu eta abar, baina Miel Anton denon kide da eta kitto, ez da ia bat ere erlazionatzen. Baina oso inteligentea da, atzerriko hiru hizkuntza

dakizki eta makina bat liburu itzuli ditu, nahi al duzu jais-
ten garenean aurkeztea?

– Ez, ez, utzi, bakarrik nor zen jakiteko galdetu dizut,
kuriositate hutsa.

– E, begira! Heldu garela dirudi. –Autobusa gelditzen
da.

– Begira zelako jende pila! Han daudela gure jezarle-
kuak esan liteke, hango hutsune hartan. Balkoi hartatik
eman behar du meza gure Paulo VI.ak, Aita Sainduak.
Monastegi bietako fraile guztiok autobusetik irten eta
aurretik erreserbaturik geneuzkan jezarlekuetarantz abiatu
ginen, Aita Sainduaren meza entzuteko asmoz. Meza
bukatzerakoan Jose Antoniok eta Julianek batera jarraitzen
zuten Pradoko museora eramango zituen autobusera sar-
tzen ari zirenean.

– Zer meza ederra, ez da?

– Bai, oso ondo egon da, oilar ipurdiaren azala ipini
zait denok kredoa errezatu dugunean, hain gaude jende
asko...

– Bai, irratian entzun dudanez, ia berrogei mila lagun
etorri dira, Espainia guztitik etorri omen da jendea, baita
atzerritik ere –Jose Antoniok Juliani bat-batean hitza moz-
tuz.

– ...eta esatera nindoanarekin jarraituz, oso instrukti-
boa gertatzen da, polita izateaz gainera, meza beste hiz-
kuntzetan entzutea.

Eta orduan Pradoko museorantz abiatu ginen. Hemen
izan zuten elkarrekin lehen kontaktua, hemen ezagutu

zuten elkar. Miel Anton bere munduan barneraturik zegoen, oso pentsakor Velazquez-en Las Meninas-i begira.

– Zer, gustatzen al zaizu? –galdetu zion Julianek.

– E..., nola? A bai, asko. Oso ona da. Nik Miel Anton dut izena, zu nor...

– Ni Julian naiz, urte askotarako.

– Bai, e... berdin. –Miel Anton ez zen ohartu ere egin. Julianek, berriz, bere susmoak baieztatu zituen, geltokian instintuak adierazi ziona ziurtatuz.

– Bai, nire ustez ere oso ona da, baina naturalismoan badaude hobeak diren koadroak ere.

– Ez da naturalismoa, errealismoa baino, eta errealismoko koadrorik hobereenen artean dago, onena ez bada.

– Joño, joño! Bizi guztian Las Meninas naturalismoarekin lotu izan dut eta hau harekin, eta orain oker nembilela esaten didazu.

– Ba bai, oker zenbiltzan, baina lasai, ez da munduaren azkena eta.

– Beno, badakizu, ez zara inoiz oheratuko gauza berri bat jakin gabe.

* * *

Honela bada, Julianek bere susmoak ziurtatu zituen. Bazekien homosexuala zela eta bere helbide eta izen-deiturak ere ezagutzen zituen. Beraz, monastegira heldu bezain laster, gutuna idazten hasi zen. Beno, eta Pradoko

bisitaren ostean, etxerantz abiatu ginen. Bilbon, gu Leirerantz eramango gintuen autobusa hartu eta eurak Donemiliagarakoa hartu zutenean eman genuen bukatutzat monastegi biok batera antolatu genuen bidaia.

Julianen lehen gutunak ez zuen erantzunik jaso, Miel Anton oso debotua zelako edo, baina bigarren gutuna ez zen erantzunik gabe geratu. Bertan Miel Antonek bere frustrazio eta miseria guztiak kontatu zizkion, eta horren garbi eta gardena izateak Julian harritu egin zuen, baina Miel Antonen kontakizun guztiak konprenitzen zituen. Honela, gutun trukean, elkarrekiko erakarmen gehien bat intelektuala amodio bihurtu zen. Jada oso ondo ezagutzen zuten elkar baina, euren erlazio bereziaren barnean hutsune, zulo edo zerbaiten falta nabaritzen zuten, haragizko erlazioen falta alegia, eta horregatik ez dakit bietariko nori, baina, bata bestearen monastegira joatea bururatu zitzaien.

Udaberriaren erdi aldera, egunak eguzkitsu izaten hasi zirenean, monastegiko burua bere eguneroko pasiadak egiten hasi zen klaustroan zehar. Inoiz ez bezala, Julianek egunero laguntzen zion bere pasiadetan eta denbora pila bat ematen zuten hitz egiten.

Monastegian bazeuden Julianen eta bertoko nagusiaren arteko elkarrizketa luzeei buruz hainbat susmo ezberdin, baina inork ez zekien guztiz ziur zertaz hitz egiten zuten. Honela, Julianek bere arrazoiak, Leiretik Donemiliagara aldatzeko arrazoiak, hortaz egoten baitziren hitz egiten horren luzaroan, formalismoei jarraituz, paperean isladatu zituen. Papera monastegiko nagusiari eman, honek sinatu eta enkomendazio eta Julianen fitxa edo ezaugarri bikaineekin, Donemiliagako buruari eman zizkion. Done-

miliagako nagusiak onespena eman zion Juliani eta hau udaren hasierarako Donemiliagan finkaturik zegoen.

Hemen galdu nituen Julianekiko pista guztiak, ez baininduen ez agurtu ez ezer, eta Julian ezagututa, asko harritu nintzen. Eta ez agurtze horrek eman zizkidan susmo txarrak, Julianen presa edo gauza arraro horrek, baina ez nion buelta geihegi eman asuntuari, bera joan bezain pronto ahaztu nintzen. Honela bada, ez nuen beraren berririk izan bi urte pasata bueltan etorri eta konfesatu zitzaidan arte.

* * *

– Aita, bekatu egin dut.

– Ea, konta bada, zer egin duzun –esan nion, ezaguna egiten zitzaidan baina norena zen asmatzera heltzen ez nintzen ahots hari.

– Aita, esatera noana oso gogorra da eta hainbeste denboraren ostean nator, nire erabakia ondo hausnartuta. –Ahots hura... norena zen galdetzen nion neure buruari, konturatu nintzen arte... Julianen ahotsa zen! Zer nahi ote zuen horrenbeste denboraren ostean berriz bueltatzeko?

– Lehenengo esatera noana da zergatik etorri naizen. Damutu egin naizelako, egin dudana damutzen naizelako eta nire gain dudana zama ezin dudalako gehiago niretzako bakarrik gorde, barrutik jan egin behar naudelako eta benetan egin dudana damutzen naizelako, damutu egiten naiz, damutu egiten naiz, damutu egiten naiz, benetan diotsut, jauna, mesedez barka nazazu. Ez dakit Jainkoak barkatuko didan egin dudana, baina ahal dudana guztia egingo dut barka nizan. Agintzen didazun guztia errezatuko dut nire

arima garbitu arte. Egunero egiten nion errezu Jaunari, baina ez nuen erantzunik jasotzen eta etorri beharra sentitzen nuen. –Zer arraio kontatu behar ote dit honek horren gaizki egoteko.

– Orain dela bi urte Madrila joan ginen Aita Sainduak bertan eman behar zuen meza entzutera...

* * *

...eta arrazoi faltsu eta imajinario asko asmatu ondoren, hango nagusiak onespena eman zidan. Hara heldu bezain pronto, Miel Antonek elkarketa edo zita bat prestatu zidan, ongi-etorria emateko edo, monastegiaren atzeko aldean. Arboladi txiki baten ostean zegoen eta ikusi ere egiten ez zen zokogune batean egin genituen gure lehen egitekoak, musu, ukipen eta antzerakoak.

Honela, munduko diskreziorik eta isiltasunik handienarekin ibiltzen ginen, elkar ezagutu ere egingo ez bagenu bezala eta, noski, ahal genuenean ahal genuena egiten. Ez ginen ibiltzen sotanaren azpitik eskua sartzen pasietan, baina denbora izaten genuen bakoitzean elkarrekiko amodioa isladatzen saiatzen ginen. Benetako amodio bihurtu zen hura. Libre izaten genuen denbora guztia ematen genuen elkarrekin bata bestearen istorio, arazo edo iritziak kontatzen, ulertzen eta entzuten, beste edozein bikotek bezala. Izaten genituen gure eztabaida momentuak ere, baina bik ez dute eztabaidatzen batek ez badu nahi.

Inoiz ez dut ahaztuko gau hura, nire bizitzako gaurik triste, latz eta zailena.

Dena guztiz kontrolaturik geneukan. Pasatu ezin zitekeena ere kontuan hartuta geneukan, xehetasun guzti-guz-

tiak ere bai. Ezustekoak ere alde z aurretik pentsaturik geneuzkan. Aurrez hitz egin bezala, bederatzi eta erdietan, denak lo zeudenean, bere gelara joan nintzen. Kandela batek baino ez zuen argitzen gela. Lurrez eginik zeuden baina zuriz pintaturik agertzen ziren paretek halako kolore erromantiko bat ematen zioten gelari –ohe txikia, gaueko mahaitxo, aulki bat, armairua, leiho txiki bat eta ohearen gainaldean kristo bat. Bost bat metro karratu baino ez. Sabaia, monastegiko zelda guztiek bezala, ia zeruan– era-kargarri eta intimista gertatzen zen zelda hari.

Biluztu eta bere ohean sartu nintzen. Bera ere biluzik zegoen. Orduan amodioa egiten hasi ginen geldiro-geldiro, leunki-leunki, emozio guztiak geureganatuz, bata besteari gorputz eta arimaz entregatuz. Eta orduan, amodioa bere osotasun guztian azaltzen ari ginenean, biok urtu eta gorputz bat edo osotasun bat sortu genuenean, Miel Anton arnasestuka hasi zen. Guztiz gorri jarri eta zainak irten beharrean agertzen zituen samari eskuak itsatsi zizkionean, eta begiak bere zuloetatik irten beharrean azaltzen zitue-nean, eta lau segundu baino gehiago iraun ez zuen denbo-ra zati luze eta batera motz hartan paralizaturik, guztiz blo-keaturik eta zer egin jakin gabe geratu nintzenean. Miel Anton hil egin zen. Pentsatzen ere ez nintzen jarri, meka-nikoki egin nuen, instintuz edo, Miel Antoni pijama jantzi eta lotan egongo balitz bezala utzi eta ahal izan nuen azka-rran joan nintzen nire zeldara.

Hurrengo egunean ohartu ziren denak Miel Anton falta zela maitinak errezatzeko....

* * *

Ez nekien zer egin, zer esan, ez ezer. Absoluzioa eman nion, eta ez nekien ondo ala gaizki egin nuen, baina horren

ondoren, orduetan zehar egon nintzen konfesonarioan jezarririk, burua hutsik, ezer ere pentsatu gabe.

Pare bat urteren buruan gauza guzti hauek idatzi eta liburu bat egitea bururatu zitzaidan eta ondoren, denbora askoren ostean, erabaki zaila hartu eta liburu hau idatzi nuen; beti ere, liburua argitaratzen bazidaten fraile izateari utzi beharko niola jakinik. Baina liburua argitaratzera benetan bultzatu ninduen gertabeharra Julianen heriotza izan zen. Hil izan ez balitz, ziurrenetik ez nuen liburua inongo argitaletxera bidaliko.

Eta honela, argitaletxe batera bidali nuen. Argitaratu egingo zidatela esan zidatenean, habituak utzi eta idaztera erretiratu nintzen, nire anaiaren baserrira.

* * *

– Eta azkanin tipo bixak joten dazela, bat hil etxenda, imagina zelako flasa. Ordun bestik, hilde eztanak, hildaku lotan iongo balitx lez lagaten dau eta beran kuartoa juten da. Beste abare guztik hurrengo egunin konturatzen diz, hilddaku lehenengo errezuta juten eztanin.

– Ostia, fuerti. Guapu, guapu, gusta gazta, bane eiztazu putadi, on ia enu liburoik irakurtea.

– Joder, egixe, zelako abortu na, bueno guazen, bestelan ezga aiako autobusea ta.

– Zu, kobraztaxun hau, kafe bi eta Winston pakete bat.

– Bostehun de hogei. Geroarte.

– Bai.

– Bai.

Gaztelua

Jurgi Olaizola Gabirondo
Lizardi B. institutua
Zarautz

Haiek izan ziren opor aspergarri eta nekagarriak. Lehenik, hamabi ordu autobus zahar hartan, alde guztietan pintura zatiak erortzen zitzaizkion autobus zahar hartan, eserleku guztietan muelleren bat solte zegoen autobus zahar hartan, leku guztietan erre usaina zuen autobus zahar hartan, beti karrakataka zebilen autobus zahar hartan.

Autobusa baino okerragoa zen hotelera iritsi ginen eta, trasteak uzteko ere denborarik hartu gabe, berriz ere autobusera. Autobusetik jaitsi eta korrika parkeko sarrerak hartzera, parke barnera sartu eta korrika, leku batetik bestera, hau edo hura ikustera. Ixkina batean mokadutxo bat jan, eta berriz ere korrika, zerbait ikustera, eta okerreana, dena frantsesez ziotela eta ez nuela ezer ere ulertzen.

Gaualdean, berriz ere autobusez, hotelera iritsi, eta ikusita bakarrik gosea kentzen zuen afaria nolabait jan ondoren, ohera. Ohe zahar, zikin eta zulodun baten barnera. Gau osoan ezin izan nuen lorik hartu, sentitzen nuen hazkuragatik. Goizean, platerak baino handiagoko begizuloak nituela, jantzi eta gosalduegin nuen, nire guraso fatxa haiei zein bidaiaria nazkagarri eta plastara eraman ninduten esateko ere indarrik ez nuela.

Haiek izango ziren opor aspergarriak, hirugarren egunagatik izan ez balitz. Hirugarren egunean, gaztelu bat bisitatzera joan ginen. Ederra zen gaztelua, handia, apaina, polita eta ondo zaindua... beno, gaztelua baino gehiago, hura palazio bat zen. Abenida zuzen-zuzen batetik iristen zen bertaraino, bide osoa baso ederren artetik iragaten zelarik. Gazteluaren inguruan basoa biluzturik zegoen eta bere ordeztu lore eta landareak zeuden. Lorategi benetan polita zen hura, eskuinera labirinto handi eta korapilotsu bat zegoen (ez nintzen bertara sartzen ausartu); ezkerrean berriz, irudi miragarriak osatuz, kolore ugariak lore zoragarriak. Eta aurrean, gaztelua...

Gaztelu guztia foso handi batez inguratua zegoen, foso zeharkatzeko bide bakarrarekin: zubi altxakorra. Hau bi dorre biki handiren erdian zegoen. Bi dorreak borobilak eta altuak ziren, leiho txikiz josiak eta teilatu borobila zutenak. Bi dorreak elkarri loturik zeuden, erdian beste dorretxo bat osatuz. Gazteluak osatzen zuen karratuaren erpin batean zegoen hau; eskuineko erpinean dorre borobil eta handi bat eta ezkerrean beste dorre borobil eta handi bat, hau teilatuduna. Atzean dorrerik altuena eta handiena, lauki formakoa eta bi zatitan banatua, bat bestea baino altuagoa. Dorre guzti hauek elkaturik zeuden, baina ez pareta soil batez, pareta baino gehiago etxeak ziruditen teilatu, leiho eta balkoidun harresiz baizik.

Gaztelura sartu eta zuzenean, patioa zeharkatuaz, atzeko dorrera joan ginen. Dorrearen azpian gidari bat ari zitzaien talde guztiari itzaroten. Dorrearen atea iragan eta izugarrizko gela batera sartu ginen; nire etxe guztia baino handiagoa zen gela hura. Erdi-erdian harrizko eskailera handi batzuk zituen borobilean, goiko pisuetara iristeko. Gela guztia koadro, tapiz, alfombra eta altzariz apaindua

zegoen. Gurutze baten forma zuen eta gurutzearen beso bakoitzean bi ate zeuden, bakoitza alde batera. Ate hauek beste gela batzuetara ematen zuten. Lau gela hauetako bakoitzak bi ate zituen, egongelak ziren, lehenengoan pareta guztiak animalien buruez estaliak zeuden; denetik zegoen han, lehoiak, panterak, tigreak, basurdeak, hartzak, otsoak eta, batez ere, oreinak. Beste gela batean tapiz izugarriak zeuden, denak ehizako irudiz apainduak. Beste biak altzari ederrez beteak zeuden, irudi desberdinez betetako armairuak, eserlekuak, mesanotxeak... Altzari, tapiz edo buru bakoitzak bere historia zuen, eta nola ez, gidariak banan-banan kontatzen zizkigun.

– Hau izan zen Felipe III.a azkenengo aldiz eseri zen aulkia. Hemen gordetzen zituen bere arropak Richelieuk. Hau izan zen Henri II.ak ehizatu zuen lehen animalia. Beste tapiz honetan Chambort-eko dukearen erahilketa agertzen da eta hemen...

Aurreko eguneko bidaiaren jipoiarekin eta gidaria botatzen ari zen txapadarekin agoantatu ezinezko logurea sartu zitzaidan. Eskaileretatik bigarren pisura igotzea lan handia izan zen niretzat eta bigarren pisuan ikusi nuenarekin ezin izan nuen gehiago jasan logalea. Bigarren pisua lehenengoaren berdin-berdina zen, bere gurutze formako gela handia eta beste lau gelak. Desberdintzen zituen gauza bakarra bere edukiak ziren. Gurutze formako gela handia azpikoaren oso antzera apaindua zegoen, baina beste laurak ez, besteak logelak ziren.

Bigarren gelara sartu ginenean erabat txunditurik gertatu nintzen. Gelaren erdi-erdian ohe handi bat zegoen, nire gela baino handiagoa. Kaobaz egina zegoen ohea eta egur beltz hura guztia tailatutako irudiz betea. Dosel eder bat

zuen gainean, gorria eta lis-loreekin brodaturik. Benetan apaina zen ohe hura.

– Etzan zaitez, etzan zaitez... –eskatzen zidan

Taldeko besteak joan zirenean, ahal nuen isilen ohearen gainean etzan nintzen eta lumazko koltxoi eder hartan hondoratzen joan nintzen, loak bere magalean hartzen ninduen bitartean. Ondoko gelatik ahots apal bat iristen zen niganaino, indarra segundoka galduz.

– Eta beste hau Karlos VI. aren ohea zen...

Konturatu ere egin gabe lo hartu nuen ohe erraldoi eta samur hartan. Lo sakon eta lasaia egin nuen. Ez nintzen ohartu zenbat denbora egin nuen lo, baina erabat indarberriturik esnatu nintzen.

Esnatu eta jaiki nintzenean, hots batzuk entzun nituen alboko gelan. Zapatak jantzi eta gurutze formako gelara irten nintzen. Han zer aurkituko nuen jakin izan banu, ez nintzen inoiz ohetik jaiki ere egingo...

Jende pila bat zebilen alde batetik bestera korrika, denak zebiltzan aztoraturik, denak zebiltzan larriturik, denak zebiltzan etsi-etsian. Baina ez zen hura izan ni larritu ninduena; han zebiltzanak ez zeuden ni bezala jantzirik. Batzuek armadurak zituzten, besteek larruzko arropak eta gelditzen zirenek zirko batetik atereak ziruditen kolore guztietako jantziak. Denek zeramaten zerbait esku artean, edo trapuak, edo burukiak, edo mantak, edo lantzak, edo ezkutuak, edo geziak, edo ezpatak, edo hilotzak...

Ikusten ari nintzena sinestu ezinik nenbilela, gizon altu eta prestu bat hurreratu zitzaidan eta esan zidan:

– Hi, txikito, zer egiten duk hor, ezertan ere lagundu gabe? Mugi... etor hadi nirekin!

Baina ez ninduen harritu esan zidanak, esan zidan moduak baizik, frantsesez esan zidan eta nik dena ulertu nion.

Gizon handi hari kontrarik egiten ez nintzen ausartu eta atzetik jarraitu nion. Bere atzetik nindoala, bere janzkera aztertzen hasi nintzen. Larru tintatuzko galtzak zituen jantzirik, belaun parean edo hasten ziren boten azpitik. Soinean blusa eder bat zuen eta honen gainetik armadura, grabatuz beteriko armadura; urre kolorea zuen ertz guztian zehar eta benetan distiratsu zegoen. Buruan kasko handi bat zuen, hau ere ertz urreztatuekin eta grabatuz beterik. Lis-lore bat zuen kopetaren parean. Gerrikoa zeraman eta, bertatik zintzilik, ezpata handi bat.

Dorrearen puntaraino eramanez ninduen eta han makurtzeko esan zidan. Burua pixka bat altxatu nuen eta gezi bat iragan zitzaidan aurpegiaren ondo-ondotik.

– Hil egin nahi al duk? –esan zidan– Ingalaterrako erregearen ejerzituak inguraturik gaudek eta ez zaik ba burua ateratzea okurritzen, eta kaskorik ere eduki gabe.

Ezin zuen egia izan, erotua egon behar nuen, nola egongo nintzen ba ni Erdi Aroko gudu batean... Baina soldadu batek nirekin estropozu egin eta erortzean egin zuen soinua entzun nuen, eta baita eman zidan kolpea sentitu ere.

Guganaino beste soldatu bat iritsi zen eta haraino eramanez ninduen gizonari esan zion:

– Chambort jauna, Ingalaterrako erregeren soldaduak ate nagusia erasotzeko prestatzen ari dira.

– Atera itzazu soldadu batzuk eta egin diezaietela aurre –erantzun zion Chambort-ek.

– Ezin dugu, jauna, zalduneriak babesturik datoz eta geziekin ezin ditugu geldiarazi.

– Barkatu, jaunak –esan nuen orduan nik– zalduneria-ri eusteko era bat badakit nik.

– Eman diezaizkiotela armadura eta ezpata, eta presta dezala aurre egiteko modua –esan zion Chambort-ek soldaduari.

– Baina, jauna –hasi zen soldadua– ezin...

– Egin ezazu –moztu zion Chambort-ek.

Soldaduairen atzetik joan nintzen, ezer esatera ausartu gabe. Dorreak elkartzen zituen zatira eraman ninduen eta armaz beterik zegoen gela bateko zaindariari zerbait esan ondoren, armadura, ezpata, kaskoa eta ezkutua ekarri zizkidan.

Armadurak izugarrizko pisua zuen. Beldurra sentitu nuen ezin izango ote nuen mugitu pentsatzean. Ezpata ere ez zen luma bat eta gerrikoak min ematen zidan; ezkutua, berriz, ezin nuen ia mugitu eta bizkarrean zintzilik eraman behar izan nuen. Hala ere kaskoa izan zen okerrena, burua sorbalden barnera sartuarazten zidan eta muinak sudurretik atera beharrean sentitzen nituen.

Nola-hala jarraitu nion soldaduari patioraino eta han, ertz batean, soldadu konpainia bat zegoen borrokan hasteko prest. Kapitainak ea zer egin behar zuten galdetu zidan niri eta ahal zituzten egur, iltze eta lantza guztiak batzeko esan nien.

Lantza eta egur mendi bat egin zen segundo batzuen buruan nire aurrean. Hiru egurrekin tente egoten ziren parapetoak egiten erakutsi nien. Gero esan nien bertan lantzak jartzeko diagonalean gora begira, eta mantak ekartzeko. Parapetoak bizkarrean harturik ate nagusira joan ginen, parapetoen aurrean gizon batzuk jarri ikus ez zitza ten eta, mantak sorbaldan jarririk, parapetoei gogor eusteko esan nien.

Laister agertu ziren zaldunak, lorategiko lore guztiak txikituaz, habaila bizian gure aurka zetoze la. Guregandik oso gertu zeudenean, parapetoen aurreko gizonak alde batera baztertu ziren eta zaldiek ezin izan zuten lantzetan ziztaturik geratzea galerazi. Zaldi eta zaldun asko hil ziren honela, baina ez denak. Geratzen zirenek ez zuten atzera egin eta, ezpatak zorrotatik atereaz, erasotzeari ekin zioten.

Bizkarrezurrean hasi eta gorputz guztian sentitu nuen beldurraren hozkada, hotzikara ikarragarri bat bailitzen. Nire gorputzadarrak harrizko bihurturik sentitu nituen eta ezin izan nuen behatz bat bera ere mugitu. Nire inguruan guduko hotsak entzuten nituen eta irudi lanbrotsu mugikorak ikusten nituen, baina batere zehaztasunik gabe. Forma haietako bat nigana zetorrela konturatu nintzen eta nire hankei korrika egiteko agintzen saiatu nintzen, baina ez nuen lortu. Gehiago hurreratu zenean, lanbroa desagertu egin zen nire begien gainetik, haize erauntsi bat etorri izan balitz bezala, eta nire aurrean zegoen gizon hura baino ez nuen ikusten; baina hura zehaztasun guztiekin ikusten nuen. Ezpata altxatuta zuela zetorren nigana korrika eta Ingalaterrako bandera zuen armaduran ezarririk.

Biziraupenaren legea beldurrik handienak ere ezin duenez geldiarazi, gorputza berriz ere kontrolpean sentitu

nuen. Ezpata atera eta, aurrean nuela, ezkutuaren atzean makurtu nintzen. Ingelesak ez zuen erreakzionatzeko denborarik izan eta, nirekin estropozu eginaz, lurrera erori zen. Nire ondoan geratu zen, lurrean eroria. Ezpata altxatu nuen hiltzeko asmoarekin, baina ezin izan nuen, gogorregia zen pertsona bati bizia kentzea. Baina hark ez zuen inongo arazorik izan altxatu eta nire gainera salto egiteko.

Ezpata lurrean zeukan eta aizto bat atera zuen gerrikotik. Armaduraren elkartze lekutik sartu zidan garbi-garbi. Arropak nola urratzen zitzaizkidan entzun nuen, azala nola irekitzen zidan sentitu eta, haragia apurtu eta zulatzean, min hartu nuen. Baina ez zen harekin konformatu, haragian barrena segitu zuen labanak eta hezurreraino ailegatu zen. Entzun zen soinua nire garrasiarekin nahastu zen. Zulo bat edukiko banu bezala sentitu nuen eta zulo hartatik, tantaka-tantaka, bizia ihesi ariko balitzait bezala. Azkeneko indarrekin besoa galtzarbera eramanez eta hatzen artetik odol beroa irristatzen sentitu. Beroa zen... eta berotasun harekin itxi nituen begiak.

Berriz ere ireki nituenen, airean ninderamaten gazteluan barrena, eta ohe goxo batean etzan ninduten. Goxotasun harekin itxi nituen begiak.

Berriz ere ireki nituenean, ohe handi baten gainean nengoan, eta baten bat ni astintzen ari zen esna nendin.

– Mugi zaitez –esaten zidan– bukatu da gazteluko bisita eta zu hemen, lotan...

Aita zen, eta berriz ere lehengo ohean nengoan, bisitan nembilela lo hartu nuen ohean. Dena amets bat izan zen.

Gauean dutxa bat hartu nuen eta, dutxatzen ari nintzela, galtzarbean nuen ebatondoaz jabetu nintzen. Ez zen oso

handia, lau bat zentimetrokoa, baina nahiko zabala zen eta ebaki sakona izan zela zirudien, aizto batena bezalakoa...

POESIA. A maila

BBBko 3. kurtsoa, UBI
LHko 2. gradua eta
IEEko 2. zikloa

Denboraren denbora

Leire Bilbao Barruetabeña
Ondarroako B. institutua
Ondarroa

"Poesiaren denbora,
beste denbora hura da,
astiarena eta geure
baitango erritmoena. "

J. Sarrionaindia

Izenik gabeko
karrika estuetan
entzun daiteke
etxebizitza hustuen arnasa.
Ume batek jaurtikitako baloia
zuhaitz zaharraren adarretan
ostatu harturik,
urteetan despuzturik.
Horma grisetan
margoztutako kexuak
haizeak higatu ditu...
arratoiek ere aspaldi
ihes egin zuten kale haietatik.

Bizikleta herdoildu baten gurpilak
ipar haizearen arabera
txirrio malenkoniatsuak erditzen.

Pausakor...

geldiro...

biziago...

melodia konposatuak

herri hustuari musika jarritz.

Jada badira zenbait urte

denborak ere

ez duela desizendutako herrion

ostatu hartzen.

Eliz-dorreko erlojuaren orratzak

norabidez aldatzen dira

hamabi orduro

...egun berbera

errepikatzen da

egunero...

orduoro...

minutuoro..

segunduoro...

Tximini bati
kea dario,
ke garden eta sarria,
herri isolatua besarkatu
eta lurruntzen duena.
Kearekin batera dantzatzuz,
orri puskak
ernetzen dira tximinitik.
Poema bat osatzen duen
orri berziklatua,
tximinira bota zuen poetaren
negar anpuluekin gazitua.

Denbora gelditu zuen poetak
poesia deuseztatzeke,
denbora deuseztatzeko.

Herrian barreiatu
zen poema,
fabrikatutako denboraren
aurkako guduan
garaile irten zen:

"Poeta galduak airean
Orduen gerizan gatibu,
Ezin azaldu diren melodiak
Sentitzen dituzte larruak errez,
Ikustezinaren bila konkistan doaz
Asaldata norbera ote den jakiteke.

Esaldi konposatu eta hitz deklinatuetan itoz...
Zimitarioen hauts kopurua gehituz...
Inertzia legearen danbatekoa jasoz...
Nozitzen da metaforarik gabeko errealitatea.

Diruari poesia usaina dario askorentzat
Asperraldiei, matematikei, janariei... ere bai.

Izanaren poesia eta poesiaren izana,
Zelan nozitu eta azaltzearen arteko bide harritsuak
Karrilik gabeko trenen bagoi gainezkatuak
Izerditan blai inkontzienteki doazen atzamar pekatariak
Rosetta Harriaren hieroglifikoa lez
Idatzia eta historiak iraungo du baina
Artean, historia bere kabuz oinez doa; literaturaren
Trokarteetan jariora berez doan gisan
Unatu naiz errepikatzen...

...poesia ezin da izkiriatu."

Poetak bere izateari
uko egin zion,
poesia ezin izkiriatu zela
izkiriatzean
eta poesiaren denborak
erlojuen orratzak horditu zituen.
Handik aurrera,
zuhaitz adarretan puztutako baloiak datzate
eta arratoiek ere
izututa ihes egin zuten
denborak lo hartu zuen
arima hilen herri hartatik.

Baina nik oraindik
tximinira jaurti aurretik
orriak gazitzen ditut,
ke-hauts bilakatutako eleak
herrion barreiatu
eta denbora
magalean kuluxkatu dezaten.

Ez dut
gatibu hartuko nauen
erloju orratzen tik-takik behar,
ene baitango denborak
martxan jarraitzen duen artean.

Aztiaren eskuetan...

Olatz Aranguren Juaristi
Azpeitiko B. institutua
Azpeitia

Patuaren zalantzak
argitzea otu zaidan egun honetan
ezinezkoa duk, ezinezkoa,
hitz potolo horiek barnean daramatena
argitu nahi diat.
Ezer ez da ezinezkoa!!
oihukatzen duten
zirkoetako pailazo margotuak maite ditiat,
ilusio eta umetasunez gainezka
fantasiatzko hodei distiratsuetan
jira-biraka jartzen gaituztenak,
baina ezer ez da betiko.
Hori duk jakin nahi dudana,
noiz arte zaurituko nauen amodioak,
noiz arte zulatuko nauen askatasun ezaren zizareak,
noiz arte zirikatuko nauen gizarteak,
noiz arte?
Eguzkia eta ilargia berdinak ikusi
eta zeure inguruan lurrin garratz bezain
[goxodun emakumea
agertu arte:

Heriotza.

MAITEMINDUA

Gauaren iluntasunetik
zure eskua luzatu zenidanean
izarrek irribarre egin zuten beren dizdizean
eta begiak argitu zenizkidanean
nahikoa nuen zure berotasuna sentitzea
jendez beteriko kale hartan,
zu zeu nahikoa zinelako,
bai, zu zeu, Amets.

Musikaren oihartzuna entzun nahi nuen
gitarra iheslarien punteo zorrotzak,
bateriaren erritmo markatua,
baina ez zen horrela izan.

Nahikoa izan nuen zure begien islada
neu nintzela ikustea,
gure bihotzak batu zirenean
bateria beharrik ez genuela sentitzea.

Etxaldean zurtasuna
zirrikitu estu hartatik mirestu genuenean
elurrak guztia geldiarazi zuen bezalaxe
denbora geldiaraztea otu zitzaidan.
Ezinezkoa da!!!

DEABRUA

Bota ezan dena pikutara,
ez din merezi!

Izan hadi maltzur eta gorde hitzan sentimenduak,
berak horixe nahi din, gezurretan ari zain,
alferrik dun,
ez din kasurik egingo.

Elkartu hadi nirekin
eta orduan ikusiko dun zer den bizitza,
besteei gaizkia egiten goza daitekeela
ikasiko dun.

Santu eta aingeruen aureolak
deuseztuko dizkinagu,
mundua jango dinagu.

Maitasuna desagertaraziko dinagu,
amorrua gailendu,
sexuaz eraiki guk manipulaturako Amerika berria.
Ez al dun plan ederra?

Deabruak ere jada
ez dik balio zirikatzekeo
boterea galdu dik,
baina proposamen hauek aditzean
ideia malapartatuak etorri zaizkidak burura.
Ezer ez da ezinezkoa!!!

ZINTZILIKATUA

Soka baten orekan
jartzen dudanean nire bizia,
ez dakit ohartu zaren
soka zu zarela,
alde batera eta bestera
nire lepoa estutuz
eta sokaren hariak
banan-bana lepoa ferekatzen didatenean
hotzikara sendoez betetzen zait gorputza,
horrela elurrak betiko nire erraietan
izoztu zuen sentipena gogoraraziz;
maitasuna.

Bizi ustel bezain gogaikarri honetan
geratzen zaidan azken minutua
zuri zuzendua doakizu.

Arnasa hartzea hain nekagarria
izan zitekeenik
sekula pentsatu gabeko une honetan
urkamendira zuzenduriko deiadar ozena.

Adiorik gabe
gero arte soil bat.
Banoa.
Bizia kendu didan soka,
heriotzera kondenatu nauen hari bakoitza
goresten dut,
maite dut.

HERIOTZA

Lurrin gozoa,
melenga agian
eta beltzez jantzitako anderea
badator.

Aurpegia zurbil
eta pamela handi bat buruan,
Parisetik datorrela dirudi.

Erosketetan zebilen bitartean
bere biktima ikusi
eta bizia aldatu diola dirudi.

Agian horrela izango da!

Dama beltza, hator
eta eraman nazan ildo berrietatik barrena,
ez haiz damutuko,
eraman nazan.

Heriotzari erreguka hasterik
ez nuen sekula pentsatuko,
taroteko kartak botako zizkidatenik
espero ez nuen bezalaxe.

Aztiak bere kartekin liluratu nauen bezala
gorrotoa gailendu zait zainetan barrena,
ezin baituzu entzun
nire deiadar ozena,
ezin baituzu ikusi
nire begi-niniek zabaltzerakoan esan nahi dutena:
izan zaite nire
ni zure naizen bezalaxe,
eta orduan,
orduan bai,
sinetsiko dut aztiak dioena,
jendeak dioena,
nire barneko ahotsak
kaleratzen didana,
maite nauzula alegia.

Utz itzazu
zure arrazonamendu filosofikoak,
ireki iezaizkidazu bihotzeko atea
eta izarren distira
zure begietan isladaturik ikusten dudanean,
orduan bai, orduan
sinetsiko dut
patua idatzirik dagoela
eta erromantizismoan barrena
inmortalak izaten ohituko garela,
behin eta betiko,
zu eta ni,

AMETS.

Aitonaren heriotza

Lierni Asurabarrena Zipitria
Garaialde lizeoa
Urrretxu

Han zegoen bera
alderantzizko mundu batera
joan balitz bezala.
Ezin nuen sinistu
garrantzi gabeko inurri xume izatetik
hainbesteko nahigabea sor zezakeen
pizti bilakatzera hel zitekeenik.
Barruan nuen sentrazio mingots batek
tira egiten zidan
malko bat maldan behera
abiatzen zitzaidan arte.

Bi egun soilik igaro ziren
bere esku ahulez inguratu
eta maitekiro
musu bat eman zidanetik,
bi egun
haren hitz apalak
nigana zuzendu zituen
azken alditik,
bere azken arnasa
hurbiltzen ari zitzaiola
baleki bezala,
eta hala izan zen.

Joana zen jadanik,
egun argitsua utzi
eta gau ilunera.
Zulo beltz batean murgildu zen,
inongo helbiderik utzi gabe,
betiko, betiko.

Bakarrik geratu nintzen,
aitonarekin aurrez aurre.
Harengana hurbildu,
eta hiru hitz
zuzendu nizkion,
isil-isil, apal-apal,
baina ez nuen erantzunik jaso.

Jadanik irtena zen
bizitzaren atetik,
ezin zen atzera bueltatu,
Herio gaiztoak harrapatua zuen
bere atzaparretan.
Lehiatilak itxi nizkion,
poliki-poliki.
Uste nuen
nire begiek
ez zutela gehiago
txalupa hura
nabigatzen ikusiko.

Baina bere oroitzapena
nire barneko kutxarik seguruenean
gorde nuen,
nire barneko
txokorik goxo eta epelenean.
Haren irribarre alaia
nire barneko
inprimagailurik onenean
grabatu nuen
betiko, betiko.

Gogorra egin zitzaidan
aitona lur azpian
bakar-bakarrik utzi beharra,
argitasunik gabe,
alaitasunik gabe.
Hauts bihurtuko zen,
inurrien eguneroko ogi,
baina ezin nuen
ezer egin.

Larrosa bat utzi nuen
hilobiaren gainean,
handik gutxira ximeldu zena.
Aitonak eraman zuen,
heriotzaren zulo beltzean zehar
nire maitasunaren izpiak
bidea argi ziezaion,
betiko, betiko.

Itsastar baten gogoetak

Amaia Bizkarguenaga Jugo
Aiala Kantzelaria B. institutua
Laudio

Doinua: Haize hegoa gau epela.
(Mikel Laboa).

1

Mutil koxkor bat nintzela
oroitzen naiz ondino,
niretzat ez zegoela
arrantzan egin baino.
Geroztikan nahiz ta hainbat
neke ta desengaino,
itsasoari eskerrak
iritsi naiz honaino.

2

Ohian preso aspaldian
ezin egon patxadaz.
Heriotza aldentzen dut
bihotzaren dardaraz.
Barneko sentimenduak
ez ditzaket adieraz.
Harkaitzetan uhin hotsa
da poz bakarra gabaz.

3

Aurreko leiho zaharra da
neure ametsen aukera.
Bertan hasi ta amaitzen da
kartzel honen barrera.
Txori eder, izar argi
ta eguzki sarrera;
horiek denak ikustea
da berpizteko era.

4

Haize hegoa leihotikan
sartzen da lotsa barik.
Ez baleuka haize horrek
inolako jaberik,
gizon zahar hau poztutzeko
holako jaraberik,
zinez inon ez legoke
hori baino hoberik.

5

Itsasoa bare dago
ekaitza da iragan.
Txalupetan marinela
jarri dira iladan.
Tristezi sentimendua
barreiatu da nigan.
"Min damaten oroimenak
joango balira hegan"

6

Eguzkia dirdir dago.
A zelako lilura!
Gura gabe joaten zait
begirada zerura.
Aurpegian nozitzen dut
giroaren freskura.
Duda barik azkenean
ailegatu da uda.

7

Negar malkoz bete zaizkit
bapatean begiak.
Niregana iristerik
ez du lortzen argiak.
Gau ilunak badakartza
berarekin eriak,
agortuaz bihotzeko
itxaropen izpiak.

8

Zakartu da itsasoa,
hau da desafioa!
Bere ta nire artean
sortu da sesioa.
Garaipena lortzekotan
jaurti dut desioa:
hil artean ez dezadan
galdu ilusioa.

9

Bihotzeko erlojua
apurka zait moteldu.
Buruan dudan ideia
da:"Nireak egin du".
Ez dut baina poztasuna
inondik ere galdu.
Lasaitasun gozo honek
beti iraungo balu!

10

Heriotza hurbil daukat
amaitu zait denbora.
Zimeldu da funts gabeko
bizitza honen lora.
Itsasoa maitatzen dut
noan bere ondora,
betirako atsedena
har dezadan gustura.

Zure zain

Leire Aurrekoetxea Arkotxa
Gabriel Aresti B. institutua
Bilbo

"La soledad
anida en la garganta para esperar
el grito que se arranca con su cantar
cuando llega el silencio
del desamor"

Pablo Milanés

Maindireen negarra
beirazko kriseiluaren anpulu ilunak
ohe herdoilduaren tristura
nire bakardadearen aienea
logela abandonatuan barreiatuz
zure zain

Gauaren amorante bihurtu nauzu
ilargiaren emagald
izarren noten konpasean
dantzari

"Belle Epoque"eko kabaret batean
ke eta edari artean
dantzari
zure zain

Denboraren kolunpioan jolastu nahian
erlojuari so
eternitateak, begiak ireki ditu
orratzen isekek esnatu dute bere ametsetik
neukan itxaropena, instant batean desagertu da
atearen krisketetik aldegin du

zure bila
ilusio beltzean
farola amatatuetan
taberna hutsetan
zure zain

Oraindik ez dakit
dastatuko zaitudan
oraindik ezin jakin
zergatik doakidan masailetatik behera
merezi ez duzun likorea
minez mozkorturik utzi nauen likore garratza
pañuelo sufrituan galdurik
zure zain

Do, Re, Mi, gauean dantzari
Fa, Sol, La, ilargiak naramala
Si, Do, engainaturik ero

Bakardadeak, bakarrik nagoela erran dit
eta ni, axuri otsoaren itzalpean
baso malenkoniatsuan erraturik
noraezean
burusien dunak
igo eta jaitsi
inkiet
zure zain

Gure espazioan haragi beroa
zure faltan haragia kixkaltzen
bekatuaren karriketan
delizien ferian
zure fereka ezaren truke
bakardadearen intzeria
erauziaz
axuriak, otsoa irentsi du
kontrolrik gabe ernatu
eta zu izanen zara erruduna

Arropen berotasuna errefusaturik
lentzeria gorria eskaini diot bakardadeari
beldurrik gabe, balent
desioz hanpatu gorputza
ilargiaren besoetan lerratuz
izarren melodian murgilduz
maindireen negarra xurgatuz
denboraren orratzei desafiatuz
zure zain nagoela ahaztuz.

Ohe herdoildua arnasestuka dakusat
lurrikara baten jakile
mugimendu bihurrien sinkronia
nabarmen
logelaren monotonian
bere kolore dekadenteetan
bere ertz marginaletan
nire izatea larru gorritan
nabarmen

"Inork agintzen ez didalako
dut maite maite dudana "
Horrexegatik, maite dut gaur nire okela
zure zain naukazulako
zure maiteño fidela naizelako
bakarrik nagoelako
zure ausentziak behartzen nauelako
amodioa mugagabea delako
higuingarria naizelako apika
gaur
gogoa xurgatuz
kulunkatzen naiz nire besoetan
debekaturiko karizietan
aterpea bilatu
gorputzaren arrakala guztiak xirikatu
izerdiaren zipristinetan igerian
ortze izartsu honetan
sorginkerietan, bakardadea urtu nahian
pospolo itzalezin bihurtu naiz
mermeladazko bularren gerizpean, birjina
gauaren aldarean, kanpai joka
jelosiaz kuzkurtu natzaizu

Ez, ez naiz damu

 bakardadea bortxatu izanaz

Ez, ez naiz damu

 zure tardantzaren tortura jasateaz

 maitatzeaz

 pasioz zikintzeaz

 gauaren zirkuluan

 bakarrik nagoelako

 ZURE ZAIN

Farolpeko itxoitea

Leire Bilbao Barruetabeña
Ondarruko B. institutua
Ondarru

Farolaren argi xumea
nahikoa izaten da
antsiazko begirada batez
zuk nire bihurguneak
ezagutzeko.

Zigarroa itzali,
hankak gurutzatu eta
begirada sarkina
bueltatuko dizut
"Zer, jolastu nahi al duzu?"
batekin.

Erakusleaz egingo didazun
keinuaren zain
nire herriko mutilagunarekin
lehen musua
eman aurretiko zirrara berbera
nozituko dut ene erraietan
zure "Etor hadi" a
entzun artean.

Autoaren atea irekitzean,
lehen aldiz
etorri zintzaizkidaneko
almendra koloreko
begi urduri
eta mugikor berberak
ikusiko ditut.

Narruzko eserlekuan egokitu,
motorra martxan jarri
eta adrenalina azeleratuko zaigu
Paradisurako bidean.

Familiarentzat ostenduta
dauzkazun kezkak
nigan hustu ondoren,
baretuta geldituko zara
eta neu artegatuko nauzu.

Amorruz barneratuko didazu
lan orduak eragindako stressa,
zure haserrea,
hainbeste aldiz disimulatzen
saiatu zaren negarra...
eta nik,
leial hartuko dut
zure izatearen zati hori,
bai baitakit
zure bihotzaren jabe izateko
zuk niregatik ordaintzen duzun baino
prezio garestiagoa
ordaindu beharko dudala.

Neu nauzu
zure ezkutuko aferen jakitun,
baina sekula ez didazu
nola deitzen naizen galdetu.

Karteran ondo gorderik dituzun
zure hiru seme-alaben argazkiak
erakutsiko dizkidazu,
beraietaz zein harro sentitzen zaren
esan bitartean,
aita eredugarriaren papera
betetzen duzulakoan.
Zure emaztearengatik ordea,
hiru hitz ulerkaitz
murmuriatuko dituzu...
baina nik ezagutzen dut
zetazko jantzi ponpoxoez
zure besotik helduta
pasiatzen den
emakume mardul hori.

Berriz,
farolpeko argiaren itzalera
itzuli baino lehen,
azkeneko zigarroa biztuko dut,
erre ahala
ene bihotzaren atal bat
erretzen dela pairatuz.

Gaur gauean ere,
farolpean naukazu itxaroten,
baina etorriko ez zaren ikara daukat,
atzo betiko agurtu ginen zantzuak
zentzugabeturik bainauka.

Nire gorputzarekin batera
nire bihotza saltzea
izan nuen bekatua
eta azkenean neuk ordaindu dut zuregatik.

Izaretan izerdiz utzitako
zure lorratza
ilunpean nahasturiko
aurpegi ezezagun batek
noizbait beteko duen itxaropenean
geldituko naiz.
Zigarro, oroitzapen eta
hautsaren hautsez
maitale zaharron kabia oroitzuz...
haizeak,
gomutak
kaleko hautsez beterik
urruntzen dizkidan artean...
Sekula ez zara emakume baten maitasunarekin asetuko!

POESIA. B maila

BBBko 1. eta 2. kurtsoa,
LHko 1. gradua eta
IEEko 1. zikloa

Jaiotza bat

Mikel Ayllón Corral
Aiala Kantzelaria B. institutua
Laudio

"–Alde batetik hobeto –esango zion
Anttonek Xalbari, etsita –Ez al zaik
iruditzen mundu triste honetara haur bat
ekartzea astakeria hutsa dela...?"

J.M. Irigoien

I

neskatxa beltzaren ibilerak
mozkor antzean
antxeten hegaldiak oroitarazi dizkio
parkeko bankurik isilenean
atseden hartu duen atso hordiaren
garun itoari

baina umeak ez die beldurrik
trapuzko zakur zaharkituei
are gutxiago
parkeetako zahar begiradabakoei
aitzitik baizik
bere ezpain birjinal gorriek
mozkorraren masailekin egin baitute

enkontru
eta lutu ikuitu bat
ezarri dio denborak eszenari
beren gibeletan zain dagoen
Migel Angelen Dabid eskulturaren igoalak
barre dagien bitartean
ezeren aiduru

bien begiradek
eskulturaren forma angeluar
ederrak mirestuz
harrian zizelaturiko espiraletan
galtzen dira
kosmosetik harago

eta Adanen mintzoak
"pentsatu al duzue inoiz
garaiko artista perfekziozaleek
Evari zergatik ez zioten
harririk eskaini?"
zema dira bien irudimenerako

eta neskatxak Eva irudikatu
du Adani musuka
bere oroimenaren parke narriatuan
sagarrondo baten gerizpean

eta atsoa bere senarraz oroitu da
Evarekin balego hobe!
haatik maite du oso
eta bi harri single
gorde ditu patrikan
bere gizonarentzat opari

II

aurrerago Mironen Diskoboloak
oles egin dio
neska ederto hazitakoari
eta gihar borobilen indarra
erakutsi dio diskoa jaurti
duenean urruti
ortze argian iltzatuz
eta asagoko ohe lizunen batean
burua erdibiturik etzanda dirauen
balizko puta merkeari
izen bat
otu zaio diskoarentzat:
eguzki
krabelin eta tulipanek eten
dute elkarrizketa inozoa
larrosek utzi diote masturbatzeari
erle beltz larain batek
orkidea zuri bakarrari ohostu
dionean polena oro
 neskari eskainiz
 odol jarioa etenez
 emakume bihurtuz

III

aurrerago Rodinen Pentsatzaileak
bizitzaz dagi gogoeta taigabe
eta emakume inozoak
itauna luzatu dio deblauki

"Zergatik handitu
zait horrenbeste sabela eta
bularraldea? Arrazoirik
ba ote?"

burua altxatu du Pentsatzaileak
eldarnioan utzi baitu galderak
eskemak oro hautsi baitizkio
jadanik ez baitu ulertzen
pilotak zeren zioz diren borobilak
edota olatuak nolatan
hiltzen diren kostaldean
itsasoa noiz den ere ez daki
jada ez du bizitza entelegatzen

IV

aurrerago ez dago ezer
gehienez apika izua
eta bodegoi bat
esku dorpez
hala nola pindatua
ondoan natur paisaia
limiterik gabeko karratua libro
Ching-Fu pindalari xinatarak
Hung-Wu enperadore eroaren
atzaparretatik ihes egiteko erabili
zuen hura
eta ondoan

bi begi

b

i

b

e

g

i

zuri so

Boticelliren begietan irudi bat
oroimenaren pareta zurbiletan bezala
eskegita koadro bat
Venus-en jaiotza
bere baitakoa ez den
neskatxa neska eta emakumea

jaiotza bat:
zurea,

**The beautiful life of drugs;
very-very beautiful life...**

Mónica Estévez Fernández
R.M. de Zuazola B. institutua
Oñati

... her death was a dramatic illustration
of how far drugs have become part of our culture.

Egiazkoa ez den oinaze baten deskantsua
hasieran irrikia ahoan sartua daukazu
barrena sutan kiskaltzeraino sartua.
Agortu daitezke zeure pazientziaren iturriak,
sua jelatu dadila eskatzen duzu,
zerbait horren bila abiatzen zara
inongo mehatxurik gabe akazi beltz baten soinura...
Egiazkoa ez den oinaze baten deskantsuan
aldizka-aldizka beldurra haren lekuan,
desioa zeure barnean mintzatzen hasia da,
gozamenaren desio, heriotzaren lanturu baten soinean
ezkutatutako desio merkea...
Zaztadaren ondoren une bateko oinazea,
zeta leunean bilduta bezala aurkitzen zara
zikinkeria horren diamante bermatuak zeure
[biziaren algaren truke.

Eromen gozoa sentitzen duzu zeure gorputzean
nahi duzuna, desio duzun guztia ematen dizun eromena.

Momentu labur batean hegan egitera bultzatzen

[duen eromena;

hegan, akazi beltz baten soinura

Mozarten Requiem-arekin bat,

sentitzen duzun irrika merkearekin batera...

Hegan, gauaren lozorroan

esperantza ttikienaren bila ziztada bakoitzean...

Bai, ezerezean abiatzen zara zeure desioaren

[atmosfera zehar,

tximeleta baten hegadak baino astindu handiagoak eginez,

isiltasuna areagotuz, zeure desio laburraren segundoak

[gozatzen,

erotasunaren menpe, zikinkeria puska baten esklabo

[izanez.

Gaurko ilargi beteak zure gorputza isladaturen du;
haize zorrotzaren oihu hotza nagusitzen da,
bukatu da guztia, amaitu da desioa
aldegin du zure barnea huts utziz,
ezerezean difuminatutako huts sakonean zeure existentzia
[murgildurik.

Desioa baino garrasi hotzagoa bota nahi duzu,
zeure gorputza beroa dago oraindik
baina, hozten doa desioak aldegiten duen heinean.
Zeure gorputzean sentitu nahi duzu zeurekin bizirik,
ahoa lehortu egiten zaizu, izerdi hotzak zeure gorputza
[zeharkatzen du.

Zeure malkoak usteltzen dira,
zure arnasa larritu da,
heriotza zeure ikatz begietan isladatzen da
azken hatsaren lurrunean marrazturik...

Beldurra aspaldi xurgaturik
erotasunaren menpeko gizaki ximplea sentitzen zara,
gauaren oreka hausten duen eroa, beltzaren fereka.
Zabor gehiagoren nahiak zeure neuronak kolapsatzen ditu
eta egiazkoa ez den oinaze baten deskantsuan
eroak pareta etsipenaren etsipenez urratzen duen bezala
abiatzen zara berriro ezerezean barna.

Hasieran erretzeko moduko irrikia,
geroago, une bateko beldurra...

Azkenean, ilargiak dena zelofaneztatu orduko,
azkenean, zeu zara oinaze horren errudun bakarra,
**ZU ETA ZEUREGAN ERNATURIKO DESIOAN
BILAKATUTAKO SUGEGORRI MORTALA !!!**

Garaiak

Mikel Ayllón Corral
Aiala Kantzelaria B. institutua
Laudio

"garaiak, garaiak non heriotz ttipiak
poema abailtan urtzen baitira
non edertasuna zaramaren apopilo den
eta legez kanpo beti."

J. Olasagarre

GERRA GARAI GORRIAK

Eldarnioan esnatu naiz
berriro ere,
lokamutsetatik doi-doi ihesi,
gibelean utzitako negu gorriko
gerra gorriko bala kolorgeak
saihestuz.

Ilargiaren errainuek ferekatzen
zituzten lo egiten genuen
arboladien arteko hutsuneez
betetzen dituzte oraindik
ene ametsak;
hutsunez bete.

Eta ilargian inork
landaturiko lore gorri batek
egiten zidan oles
alboko latsean garbitzen genituenean
zauri gorri irekiak,
eta aurrerago, urjauzian
arrain gorriek zegiten jauzi,
gorriz tindaturiko uretan,
gau beltzean.

Ilbeteko gauetan,
datozkidan oroitzapen gorriak
nazkatzen ditut,
baina ilargian hazi den
larrosa gorriaz maitemindu naiz,
eta aspaldiko orbain
ireki berrietatik itzuri egiten didan
odola eman diot opari,
lazo gorriz apain.

DESGARAIAK (Ihesari ematen dionean denborak)

Ekiak mendietako zuria urtu du,
elurra hasi da zerutik behera
eta lorak asetu dira azken eguzki errainuen ondoko
lehenengo ur tantekin.

Bale erraldoiak apaburu txiki izateko
ametsak borobildu ditu
haizeak busti dionean
goialdea
urak xukatu
behealdea.

Estazio abandonatu arrailduetan
bidaztien harat-honaten
oinotsik ez da entzuten
airea izkinaren bueltan itzuri baita
denbora ere, igoal.

Eta erloju zahar urdinduak
berri dira,
eta orratz deslaiek
orain alde batera
orain bestera
anitzetan ere geldi
baina inoiz ez aitzinera ez gibelera,
denboraren ihesaren berri ematen dute
berri eta zahar.

AMODIO GARAI NAHASIAK

Eta "carpe bien" esaten zenidan belarrira
eta mezetako "ego te absorbo"

praile, apaiz eta mesa laukiak
zetozkidan burura

orgia bikoitzaren ondoren
zure sexuan etzaten nintzenean

"be(h)atus illea" xuxurlatzen zenidan amoroski
eta bertze munduko ezer ez zirudidan

zure ile kiribila.

–Pubis sunt –esan didazu

eta ederra iruditu zait bai
zure pubisa,

baina inozoa zure burua

–Ez al dakizu besterik esaten? –esan dizut

zure Ernazimenduko jantzi
zeremoniatsuarekin jantzi zarenean

-A dios! –esan didazu

-Nori? –esan dizut

eta J.S. Elkanorekin joan zara

"primus circumdedisti me"

**Beltza ez delako hain
beltz eta zuria ilunago**

Amaia Artolazabal Amilleta
Garaialde lizeoa
Zumarraga

Hitzak eramaten dituelako
iparra eta hegoa bategiteagatik
beharbada hotz eta beroa delako
agian sentimendu batzuk adierazteagatik
ziur nago,
badakit,
beltza ez dela hain beltz
eta zuria ilunago
horregatik haizea,
zabaldu neure hitzak!

Gau bat zen,
neguko gau bat hain zuzen,
ilunetan iluna, ilunik bazen.

Bat-batean,
parkea josten zuten
zuhaitz biluzien artean,
lurra jazten zuten
hosto hilen sabelean,
zu agertu zinen.

Ezagutu zintudan
hala pentsatzen nuen bederen,
baina bakardadean,
hezea bihurtzen zintuzten malkoek
harritu ninduten,
sorbalda eskaini nizun,
eta zuk halabeharrez,
negarrez, zotin mingotsez,
berezi egiten zaituen harrotasunez
begiak zaztatu zenizkidan bihotzean,
menperatu ninduzun,
indartsua zara,
indartsua zure txistua irrintzien artean,
isiltasunaren errege,
neguko gau ilun batean.

Goiz bat zen,
udaberriko goiz bat hain zuzen,
argietan ederrena, ederrik bazen,
leunki eta astiro,
zerua lurreratzen zigun
oihal dantzariaren
olatuekin lagunkiro,
kresal gaziaren zipriztinetan
bataiatu zinen.

Ezagutu zintudan,
hala pentsatzen nuen bederen,
baina bakardadean,
ezti bihurtzen zintuen gozotasunak
harritu ninduen,
gorputza oparitu nizun,
eta zuk halabeharrez,
irribarrez, algara mutuez,
berezi egiten zaituen isiltasunez,
bihotza eta arima lapurtu zenizkidan,
zurea egin ninduzun,
maitagarria zara
liluragarria zure erakarpen indarra ahulen artean,
argiaren erregina
udaberriko goiz argi batean.

Isiltasunaren errege, argiaren erregina,
badakit haizea zarela,
badakit askea zarela,
badakit goizero orratz dezakezula
zerura begiratzen duen maindire berdea,
badakit iluntzero dantzatzeko eskatzen dizula
zeruaren ispilu gardenak,
badakit negar egiten duzula,
badakit ez zarela guztiz zoriontsu, ...
Onartzen dut ez zaitudala ezagutzen,
onartzen dut miresten zaitudala,
onartzen dut pentsamentuek, buruak lotzen nautela,
onartzen dut sentimentuek, bihotzak naukatela hemen,
onartzen dut sustraiek didatela bidaia eten.

Baina jakin ezazu
arnastu nahi zaitudala, zugaz jantzi nahi dudala,
neguko gau ilun eta udaberriko goiz argietan
zain izango nauzula,
biluzten duzun zuhaitzartean
edo zerua lurreratzen digun oihal dantzariaren zipristinetan
beti izango duzula nire begirada galdua,
horregatik eta hitzak daramatzazulako
beregianatu iezadazu zerua,
helduko baita askea izango naizen eguna.

Horixe bakarrik

Matxalen Zabaljauregi Markuerkiaga
Gabriel Aresti B. institutua
Bilbo

Doinua: Ezin ahaztu bertsoena

Paper baten jarri nahi
mila sentimendu
zuga pentatzen pasaz
ordu ta segundu.

Nire ondotik zinen
betiko aldendu
beste neskak gehiago
balio omen du.

Nire ondotik zinen
betiko aldendu
baina bihotz erditik
ezin zaitut kendu.

Edozein momentutan
harturik bi kaña
sentikor jartzen zinen
poeta bat adina
irribarrez eztiki
hurbilduz ezpaina
hitzekin hori inoiz
ezin azal baina.
Irribarrez eztiki
hurbilduz ezpaina
gure harremana zen
benetan bikaina

Zure hitz goxo haiek
gogoratzen ditut
nahiz eta pasa diren
urte luze batzuk;
dena azaltzen zuten
bi begi hunkituk,
zugandik jasotako
hainbeste ukituk.
Dena azaltzen zuten
bi begi hunkituk
maitemintzea zer zen
esan zenidan zuk.

Gau desdixatu baten
guztia nahasi;
maitasuna itzaltzen
ez ote zen hasi?
Sentimendu latz hoiek
nork adierazi?
Nire bizitza ere
itzali zen, kasi.
Sentimendu latz hoiek
nork adierazi?
Orduan egin nuen
sufritzen ikasi.

Hainbat denbora pasaz
guk biok ondoan,
bi gazte maitemindu
hain mundu eroan.
Gau bedeinkatu hura
orain dut gogoan
izarretaraino zuk
ninduzun eroan.
Gau bedeinkatu hura
orain dut gogoan
pasatu genuena
elkarren alboan.

Arinegi pasata
amodio muga,
heldurik jasangaitza
zertzen den lekura;
nigana etortzeko
hartuaz ardura
egia bihurtu zen
nire susmo hura.
Nigana etortzeko
hartuaz ardura
esan zenidan: Maite
dena bukatu da.

Ez dut zure berririk
izan ordudanik;
ez pentsa ez dudala
nik egin negarrik,
ezin esan nezake
onena zarenik
ez baitut beste inor
probatu oraindik.
Ezin esan nezake
onena zarenik
"benetan maite zaitut"
horixe bakarrik.

Desgaraiko olerki zentsugabe solteak

Mikel Ayllón Corral
Aiala Kantzelaria B. institutua
Laudio

Hamaika era dago,
maite zaitudala esateko:

Mai

ait

ite

te z

e za

zai

ait

itu

tut...

Maite

zaitut.

Eskurik erabili gabe
emandako txaloak entzun zituen
balizko musikari imajinatuak,
teloiak
bera eta eszenatokia
irensten zituen bitartean.
Jendeak arin hustu zuen
zinezko musikariaren
irudimen aretoa.

Trenaren oihartzunak
ene belarrietan egiten du eko,
zure zapi umelduan,
ene eskuek xukatu dizkizutenean
zure azken anpulu isuriak.

Karrika goibeletan
paseiatzen dira oraindik gauez,
behiak,
egunez larreetan bazkan dihardutenak.

Dilin-dalan
kanpai hotsen erritmoan
goizeko ordubietan.

Egunak hazi laranja erein du
mendien larre berdeetan,
eta gaua sortu da
bere izar-fruitu urrun mardulekin.
Baina inork ez du esperantzarik galdu
izarrei bere udazkena helduko zaiela,
horitu, usteldu
eta eror daitezen.

Monastegi mistikoen
erdi puntuko arku dotoreetan
haizeak hartzen du arnas,
larrosak hazi eta zabaltzen
dira egunsentiro
gauean berriro isteko.

Han, eraikuntza antigoalekoaren
bihotzaren odolak ez du nora,
ero-ero dabil,
neskatxa gazte birjinen
begi hitsekin maitemindurik.

Bakardadearen itzaletan

Unai Villena Camarero
Arreiturre B. institutua
Elgoibar

GALTZAILEAREN URRATSEAN

Egunak urrez estaliriko ilargia bustitzen duen heinean,
eguzki indartsua ageriz doa zeruan,
lainoen dantzek paisaia betetzen.

Nire begietara begirada: ezer...

zehatzik ez behintzat.

Izerdi tanta hotzek bustitzen nauten heinean,
beldur indartsua nire jabe egiten doa agerian,
bizipozaren hotsak urrunean kolpatzen.

Beharbada galtzailearen urratsean nago, beharbada.

Ihintz goiztiarrak zuhaitzen hostoak bustitzen dituen
[heinean,

loreak esnatuz doaz zelaian,
txorien kantuak paisaia betetzen.

Nire oinetara begirada: ezer...

garbirik ez behintzat.

Heriotza goiztiarrak basamortu idorra osatzen duen
[heinean,
ximelduriko loreak hiltzen doaz zokoetan,
kukuaren kantu malenkoniatsua ezerezean galtzen.

Baliteke galtzailearen urratsean egotea, baliteke.

Gauaren poderioz argia iluntasunean bustitzen doan
[heinean,
ilargiaren urrea nabaritzuz doa,
isiltasuna guztiaren gainean nagusitzen.

Nire barnera begirada: ezer...
onik ez behintzat.

Errutinak bere egiten nauen heinean,
ezeren jabe ez eta gauza guztien menpeko naizela ohartzen
[naiz,
pizturiko sugarrek samina arintzen.

Ziurrenik galtzailearen urratsean nago, ziurrenik.

BAKARRIK NAGO

Zu ez zaude jada,
bakarrik nago.

Ezin atzera egin:
damua,
izua,
esperantza galdua.

Berandu da jada,
bakarrik nago.
Ez dut ezer,
zu gabe ez bainaiz ezer,
ez noa inora,
zu gabe ez baitut nora joan.
Non zaude, maitea?
Iraganaren itzalen artean.

Erraza da, bai,
denborarekin jolastea:
kutxa handi horretan atzera egitea.
Zure begiak,
argia,
eguzki beroa
eta itsaso barea.
Bi bihotz: bizitza bera.

Ez, ez zen argia,
zure begien distira.
Ez, ez zen itsasoa,
zure begirada goxoa.
Ez, ez zen poza, ez zen zoria,
zu zinen, nire bitxia.

Zu ez zaude jada,
bakarrik nago.

OI, ZAHARTZAROA

Oi zahartzaroa, amaieraren hasiera goxoa!
Ikusmena murrizten doakit eta entzumena itzaltzen,
eguzkiaren izpiek ez naute ni bustitzen.

Ezintasuna: gauza guztien isiltasuna.

Zeruan izartxoak dir-dirka,
gure barnea jaten oroitzapenak, apika.

Oroitzapenak: iraganaren ispilu gardenak.

Ikus dezaket iraganean... Nire sehaska txikia

lorenz jantzia.

Nire ama ederra,

aita,

aitona,

txakur nagia.

Etxeko ataria eta

lehen andregia,

bere gorputz epela:

Haren ezta banu

jantziko nintzateke,

orlegi,

eta marraztuko nuke

mundua eta bere aurpegi:

Itsasoa begietan,

sua ezpainenetan,

gustura kiskali nintzen

haren muxuetan.

Ikus dezaket iraganean... Lehertu zela gerra,
famiariaren galera.
Etsai,
kontrako,
arerio,
eta patu okerra.

Oi zahartzarora, amaieraren hasiera goxoa!
Urteen zama bizkarrean, bekatuena ariman,
urre balira kontatzen ditut pasatzen diren egunak.

Bizia: itzaltzen doakidan argia.

Kartzela hotza, denbora aurrera,
gorputz ahula eta dena behera.

Herioa: amaierarik gabeko loa.

Oi, zahartzarora, amaieraren hasiera goxoa!

URRZUNOTARRAK

1986-1996

ABIZENAK ETA IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Agirre Elgarresta, Martin	Idazmakina bakarti baten azken narrazioa	1986	11	Prosa
Agirre Larrea, Antziñe	Irrati baten gora-beherak	1986	55	Prosa
Agirre Lazkanoiturburu, Mikel	Zergatik?	1989	143	Poesia
Aldabaldetrekua Etxeberria, Gotzon	Itzultzerik gabeko bidaia	1993	97	Prosa
Altuna Angiozar, Nekane	Baldin argia ikustera iristen banaiz	1988	117	Poesia
Altuna Angiozar, Nekane	Niregandik urrun	1987	95	Poesia
Altuna Jauregi, Karmele	Praisku mutil zaharra	1986	99	Poesia
Altuna Jauregi, Nuria	Bizitza horrela delako	1987	11	Prosa
Alvarez Gerriko, Ion	Betidanik, betirako	1990	155	Poesia
Alzate Azpiroz, Jon	Zozketagai xelebrea	1992	103	Prosa
Alzugarai Sacristán, Aitziber	Zergatik?	1988	167	Poesia
Amondarain Ipiña, Nagore	Gogoratzen haiz	1995	195	Poesia
Amozarrain Mendizabal, Idurre	Pentsamenduak	1995	201	Poesia
Apaolaza Goena, Amaia	Amaigabeko itukin latzak	1992	17	Prosa
Apaolaza Goena, Amaia	Zaharra berri... orain eta beti	1993	59	Prosa
Apaolaza Larrea, Uxue	Azken bost minutuak	1996	77	Prosa
Aranburu Aseginolaza, Iñigo	Sahatsaren azken negarra	1987	19	Prosa
Aranburu Aseginolaza, Maria	Bi hitz nire pentsamenduen maizterrari	1990	113	Poesia
Aranburu Zeziaga, Xabier	Hiriaren ostadarra	1989	113	Poesia
Aranguren Oiharzabal, Ainhoa	Gauaren atsedeen isila	1989	171	Poesia
Aranguren Juaristi, Olatz	Aztiaren eskuetan	1996	125	Poesia
Arratibel Galartza, Enara	Begi diztiratsuak	1995	49	Prosa
Arregi Elosua, Ainhoa	Konfidantzaren ordaina	1988	41	Prosa
Arrese Iturbe, Olaia	Maitemintzearen gaztigua	1993	175	Poesia
Arrizabalaga Linaza, Mirari	Zereko zera zertzeko	1986	105	Poesia
Arruebarrena Lizarralde, Miren Gurutze	Iluntasuna	1994	179	Poesia

ABIZENAK ETA IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Arruza Elgezabal, Amaia	Naturaren legea	1988	49	Prosa
Artetxe Arrien, Ainara	Isilpean bego Anttonen itxura	1988	89	Prosa
Artola Iriondo, Mikel	Nagusia eta hirurok	1992	87	Prosa
Artolazabal Amilleta, Amaia	Beltza ez delako hain beltz eta zuria ilunago	1996	195	Poesia
Asurabarrena Zipitria, Lierni	Aitonaren heriotza	1996	137	Poesia
Aurrekoetxea Arkotxa, Igor	0—14	1991	155	Poesia
Aurrekoetxea Arkotxa, Iñaki	Merezi al du paradisuak?	1987	101	Poesia
Aurrekoetxea Arkotxa, Leire	Zure zain	1996	153	Poesia
Auzmendi Agirre, Agurtzane	Omnia vincit amor – maitasunak dena garaitzen du	1990	161	Poesia
Ayllón Corral, Mikel	Desgaraiko olerki zentzugabe solteak	1996	213	Poesia
Ayllón Corral, Mikel	Garaiak	1996	187	Poesia
Ayllón Corral, Mikel	Jaiotza bat	1996	171	Poesia
Ayllón Corral, Mikel	Zure xerka	1995	187	Poesia
Azkarate Egaña, Belen	Amona, egia ote?	1990	19	Prosa
Azkue Ibarbia, Xabier	Azken hitzak	1987	107	Poesia
Aztiria Etxeberria, Nekane	Lamintxo	1986	17	Prosa
Baroja Arrue, Miguel M ^a	Apokalipsis 1913	1994	25	Prosa
Basterra Fernandez, Ainhoa	Bihotzeko kontraesanak	1986	26	Prosa
Bastida Loinaz, Ana Isabel	Igande gau batetako eztabaida imaginarioa	1987	29	Prosa
Beloki Lizarralde, Leire	Amodioaren desterruan	1995	211	Poesia
Beloki Lizarralde, Leire	Itsasoaren menpean	1994	185	Poesia
Bengoia Santxo, Mikeldi	Zu eta ni (hiria medio)	1988	135	Poesia
Beobide Azpeitia, Begoña	Abestiaren argia	1989	161	Poesia
Berasaluze Ostolaza, Garikoitz	Amodioaren itsasoa	1990	145	Poesia
Berasaluze Ostolaza, Garikoitz	Amodioaren sehaskan	1992	161	Poesia
Berasaluze Ostolaza, Garikoitz	Auñamenditik zure leihora	1990	151	Poesia

ABIZENAK ETA IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Berasaluze Ostolaza, Garikoitz	Iraunen dute	1993	169	Poesia
Berasaluze Ostolaza, Garikoitz	Kimeraren harresietan	1994	137	Poesia
Berasaluze Ostolaza, Garikoitz	Poesiaren magalean	1992	167	Poesia
Betzuen Arana, Kepa	Seiak eta hamar	1995	113	Prosa
Bilbao Barruetabeña, Leire	Denboraren denbora	1996	117	Poesia
Bilbao Barruetabeña, Leire	Herioaz maitemintzean	1995	165	Poesia
Bilbao Barruetabeña, Leire	Farolpeko itxoitea	1996	161	Poesia
Bitorika Albizu, Arkaitz	Bat-batean baturik	1994	167	Poesia
Bizkarguenaga Jugo, Amaia	Itsastar baten gogoetak	1996	145	Poesia
Cano Jauregi, Harkaitz	Amodioa, gorriz jantziriko emagaldur hori	1993	125	Poesia
Cano Jauregi, Harkaitz	Denboraren hautsontzian	1992	127	Poesia
Cano Jauregi, Harkaitz	Erresuma ahituak	1993	133	Poesia
Cano Jauregi, Harkaitz	Jazza dut maitale	1991	109	Prosa
Cano Jauregi, Harkaitz	Jitolore	1993	45	Prosa
Cano Jauregi, Harkaitz	Kaosaren abantailan	1993	143	Poesia
Cano Jauregi, Harkaitz	Urak ekartzen duena	1993	183	Poesia
Churruca Fernandez, Xabier	Boga-boga sareetan	1988	81	Prosa
Collado Legorburu, Sergio	Leihotik begira	1994	115	Prosa
De los Mozos Olaizola, Izaskun	Semeak beti seme	1990	131	Poesia
De los Mozos Olaizola, Izaskun	Heriotza	1988	155	Poesia
Egiguren Azkune, Ekhiñe	Esan al dizut inoiz...	1994	173	Poesia
Egiguren Azkune, Ekhiñe	Orkidea beltza	1995	131	Poesia
Egiguren Azkune, Ekhiñe	Gau euritsu batean ezagutu nuen	1993	87	Prosa
Egiguren Imaz, Izaskun	Aitorpenak ilunabarrean	1988	11	Prosa
Eguren Etxabeguren, Iñaki	Hallelujah! Hallelujah!	1991	117	Poesia
Elduaien Uranga, Estitxu	Bizitzan hamazazpi urte	1993	113	Prosa

ABIZENAK ETA IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Esna Badiola, Aitor	Eguna	1988	123	Poesia
Esnaola Goienetxea, Mateo	Ezkortasun boladetako gogoetak	1986	111	Poesia
Estankona Bilbao, Igor	Kondairak dioenez	1992	95	Prosa
Estévez Fernández, Mónica	Lehenaldia ahazten, oraina bizitzen	1995	223	Poesia
Estévez Fernández, Mónica	The beautiful life of drugs; very-very beautiful life	1996	181	Poesia
Estiballes Ormaetxea, Arkaitz	Au revoir, maitea	1995	29	Prosa
Estiballes Ormaetxea, Arkaitz	Azken trenaren zain estazioan	1995	19	Prosa
Estiballes Ormaetxea, Arkaitz	Bekatuaren isurkia	1995	57	Prosa
Estiballes Ormaetxea, Arkaitz	Udazkeneko arrats euritsu bat	1994	63	Prosa
Etxebarri Coello, Aritz	Burruka	1988	149	Poesia
Etxeberria Yoldi, Naiara	Badajoztik edonora	1994	81	Prosa
Etxezarraga Ziarrusta, Irantzu	Arbasoen ahotan	1991	19	Prosa
Ezeiza Ramos, Ainhoa	Idazle proiektu baten aburuak	1989	25	Prosa
Ezkiaga Iparragirre, Amaia	Heriotz Andereak zuria du laket	1990	39	Prosa
Franko Sudupe, Jaione	Zerutar inperioaren zedean	1988	97	Prosa
Galarraga Aiestaran, Patxi	Oihartzun eta tenk	1989	121	Poesia
Galarraga Aiestaran, Patxi	Taiga eta Zorrilla	1989	127	Poesia
Galarraga Aiestaran, Patxi	Une hartan... eta orain	1990	137	Poesia
Galdos Arrondo, Olaia	Agurraren lezioa	1994	17	Prosa
Galparsoro Sarriegi, Ainhoa	Pailazoak irrifarra galdu du!	1992	61	Prosa
Ganzarain Etxaniz, Xabier	Ziutate postmoderno historiagabea	1992	55	Prosa
García Aretxabaleta, Alexander	Fraileen arteko kontuak	1996	93	Prosa
García Berasategi, M. Jesus	In memoriam	1992	141	Poesia
Garcia de Cortazar, Miren	Hutsune eta itxaropen	1987	35	Prosa
Garcia de Kortazar Agirrezabal, Jon Ander	Azken etapa	1992	69	Prosa
Garmendia Etxabe, Jaione	Markel	1986	31	Prosa

ABIZENAK ETA IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Garmendia Irizar, Maddi	Bakarrik	1996	87	Prosa
Garmendia Munduate, Larraitz	Amodioaren garapena	1992	155	Poesia
Goenaga Jauregi, Jon	Gertaera arraroak	1991	89	Prosa
Goia Imaz, Garazi	Amodioaren pasioa	1996	49	Prosa
Goikoetxea Gezuraga, Josu	Azken fotogramak	1992	121	Poesia
Goikoetxea Gezuraga, Josu	Frenopatiko triste eta eroa	1991	123	Poesia
Goitia Pastor, Leire	Galdutako bihotzaren bila	1989	79	Prosa
Gurrutxaga Uranga, Amagoia	Bi eguneko egunkaria	1986	71	Prosa
Ibargutxi Gisasola, Lierni	Holyhead—en gertatu zena	1991	99	Prosa
Imaz Ganzarain, Itziar	Bizitzaren egia	1991	69	Prosa
Imaz Irastorza, Mikel	Fenixaren pabeiloia	1986	61	Prosa
Imaz Irastorza, Mikel	Montparnasse-ko usoak dira igaro	1989	31	Prosa
Imaz Irastorza, Mikel	Zentzu eta funts	1989	135	Poesia
Intxausti Ormazabal, Garbiñe	Heriotzaren magalean banengo	1989	177	Poesia
Iribarren Aristizabal, Ibon	Erretratua	1993	27	Prosa
Iribarren Aristizabal, Ibon	Okerreko gaua aukeratu nuen maitemintzeko	1993	149	Poesia
Iribarren Aristizabal, Ibon	Romeo eta Julio	1992	41	Prosa
Iruretagoiena Agirrezabalaga, Iñigo	Behin betiko	1993	193	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga, Iñigo	Bizi baihaiz	1993	207	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga, Iñigo	Metalezko zuhaitzak belaze berdeetan	1994	145	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga, Iñigo	Amodioaren frentean hildako azken soldaduari	1995	145	Poesia
Iturriaga Zugaza-Artaza, Unai	Gaua eta zu	1992	135	Poesia
Iza Totorika, Ibon	Zaparrada lehorra	1991	51	Prosa
Jauregi Larrañaga, Aitor	Ahotik ere ihes egiten dun	1989	167	Poesia
Jauregizuria Lopez, Maider	Zu ez zaudenean	1990	57	Prosa
Kano Ormazabal, Nagore	Emagalduak deitzen gaituzten horiei	1990	75	Prosa

ABIZENAK ETA IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Kastañares Etxezarreta, Asier	Itsasoak daki	1989	151	Poesia
Larrañaga Ormazabal, Ane	Alaba galdua	1996	39	Prosa
Larrañaga Zabaleta, Oihana	Zugatik	1995	87	Prosa
Larrarte Otegi, Miren	Panpina bat besterik ez	1989	41	Prosa
Lazkano Orbegozo, Aitzpea	Eguzkiak begiratu eta irri	1989	11	Prosa
Leiaristi Guenaga, Amaia	Ihes betea zilegi balitz	1988	27	Prosa
Leturia Iurrita, Iñaki	Genesi	1987	45	Prosa
Lizaso Urrutia, Maider	Zu eta ni zigarroa medio	1991	59	Prosa
Llona Ormaetxe, Idoia	Gizonak egin eta apurtu zuena	1987	53	Prosa
Loidi Garitano, Ane	Infernu berotik	1987	115	Poesia
Longarte Arriola, Maria	Fiat voluntas tua	1992	25	Prosa
Madina Ugartemendia, Mikel	Ezetza	1990	173	Poesia
Malagón Zaldua, Ana	Beleak kontatzen	1994	87	Prosa
Malagón Zaldua, Ana	Beti muga, zerbait ulertu nahian	1996	19	Prosa
Malagón Zaldua, Ana	Maitasunaren beste definizioa	1995	37	Prosa
Manterola Arostegi, Nere	Bizitzeko arrazoia	1991	77	Prosa
Mendia Usabiaga, Saioa	Denboraren ganbara	1994	97	Prosa
Mendieta Lasarte, Arantxa	Akatsa	1988	61	Prosa
Mendieta Lasarte, Arantxa	Autobeldurtze prozesua	1989	63	Prosa
Mendieta Lasarte, Arantxa	Azken gogoetak	1990	29	Prosa
Mendiolha Agirre, Aitzol	Oficialdegui-k orhoitt ükhenen dü Santi Unzueta "vasco"-a	1991	37	Prosa
Mitxelena Albisu, Inge	Ander	1988	21	Prosa
Mitxelena Albisu, Inge	Kutxa zahar baten istorioa	1986	77	Prosa
Muguruza Sarasua, Saioa	Udazkeneko bakardadea	1991	147	Poesia
Muñoa Arrigain, Karmele	Ametsondoa eta gero	1994	123	Poesia

ABIZENAK ETA IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Muruaga Lejona, Ainhoa	Superbizipenaren burruka ikaragarria	1990	101	Prosa
Negeruela Izagirre, Ainhoa	Maitasun poesia	1992	147	Poesia
Oiarbide Aldasoro, Asier	Amodio gorrotagarria	1988	111	Poesia
Oiarbide Aldasoro, Asier	Premio santu hura	1988	129	Poesia
Olabarri Aldape, Iñigo	Orbaindu gabeko zauriak	1988	161	Poesia
Olaizola Gabirondo, Jurgi	Gaztelua	1996	103	Prosa
Olarra Allika, Gotzone	Poema sozialen artean amodiozkoren bat	1986	123	Poesia
Olaskoaga Bereziartua, Naiara	Zoriona, maitasuna	1996	55	Prosa
Olaskoaga Bereziartua, Naiara	Ume baten bizia nire eskuetan	1994	109	Prosa
Olazabal Elorza, Arantzazu	Garaia	1986	133	Poesia
Ormaetxea Irleta, Amaia	Familia baten beharra	1987	59	Prosa
Ormaetxea Irleta, Amaia	Iraganarekin topo egitean	1989	93	Prosa
Ormaetxea Irleta, Amaia	Maitasun gorrotatua	1989	183	Poesia
Ornoz Antxordoki, Belen	Plisti plasta	1990	167	Poesia
Otaduy Zubizarreta, Juan Pedro	Iraganetik datorren ekaitza	1994	37	Prosa
Padrón Plazaola, J. Luis	Ilargi gabeko kalea	1987	121	Poesia
Padron Plazaola, Araiz	Denborak ez du dena sendatzen	1991	131	Poesia
Padrón Plazaola, Araiz	Pago zaharraren azken arnasa	1993	155	Poesia
Peruarena Ansa, Mikel	20 eta 12	1995	173	Poesia
Pikaza Irigoien, Nora	Zentzugabeko paktua	1986	91	Prosa
Redondo Pares, Laura	Gau hartan... iluntasunean	1989	85	Prosa
Rios Bernaola, Itziar	Amets gaiztoa	1987	71	Prosa
Salaberria Eguzkiza, Miren	Hogei hilotz	1996	65	Prosa
Salinas Elozegi, Aitziber	Ibai baten esamesak	1992	113	Prosa
Salinas Elozegi, Aitziber	Mercedesdunaren seme ez zena	1993	107	Prosa
Sansinenea Aizpurua, Ainhoa	Heriotzaren oihua	1990	91	Prosa

ABIZENAK ETA IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Santiago Arizaga, Mikel	Hosto bat bailitzan	1989	17	Prosa
Sarobe Txopeitia, Leire	Beharrezkoa	1990	65	Prosa
Sarriegi Galparsoro, Aitor	Ardi galduaren malkoak Urepeleko artzainari	1993	161	Poesia
Sarriegi Galparsoro, Aitor	Galeperrak espazioan	1991	137	Poesia
Sarriegi Galparsoro, Aitor	Horizontea	1991	143	Poesia
Sudupe Rodriguez, Maider	Azken agurra	1995	65	Prosa
Torres Renedo, Xabier	Nahitaez	1991	29	Prosa
Ugarte Zubizarreta, Larraitz	Teilen auzipean	1994	153	Poesia
Urbizu Uribe, Nagore	5B: bizitza beltz bat beltzen bizitza	1988	71	Prosa
Urbizu Uribe, Nagore	Argi bi	1988	143	Poesia
Urbizu Uribe, Nagore	Itsaso amaigabe hartan	1987	79	Prosa
Urbizu Uribe, Nagore	Jostailu berria	1990	47	Prosa
Uribesalgo Urizar, Larraitz	Askatasunaren negarra	1993	67	Prosa
Urkia Garmendia, Larraitz	Errege etzana	1992	77	Prosa
Urkizu Mendiola, Jone	Addis Kiptum	1994	73	Prosa
Urkizu Mendiola, Jone	Ihesi	1995	95	Prosa
Urrestilla Urizabal, Jon	Ostiral gau bat	1992	31	Prosa
Urrutikoetxea Vacas, Urtzi	Abazuzien pien	1995	157	Poesia
Urrutikoetxea Vacas, Urtzi	Amodio poema bat -gehiago-	1994	131	Poesia
Urrutikoetxea Vacas, Urtzi	Argazki horiztatuak	1994	159	Poesia
Urrutikoetxea Vacas, Urtzi	Behin heldu hintzen	1993	199	Poesia
Urrutikoetxea Vacas, Urtzi	Zerutik maiteari	1992	173	Poesia
Urzelai Izagirre, Gorka	Bizitzaren gurpilean	1990	119	Poesia
Villena Camarero, Unai	Bakardadearen itzaletan	1996	219	Poesia
Vives Urbietza, Alaitz	Aretoaren izkin batean	1993	17	Prosa
Yurrebaso Pikaza, Iker	Ai! Bixente, Bixente	1995	121	Prosa

P O E S I A

LEIRE BILBAO

OLARZ ARANGUREN

LIERNI ASURABARRENA

AMAIA BIZKARGUENANA

LEIRE AURREKOETXEA

MIKEL AYLLON

MONICA ESTEVEZ

MIKEL AYLLON

AMAIA ARTOLAZABAL

MATXALEN ZABALJAUREGUI

...Fokuak gutxi batzuen, gaurkoan saritu eta irabazle suertatu diren aurpegiak bila ari diren bitartean niri, gaurko honetan, argi distiratsu horietatik at geratu diren hainbeste eta hainbeste idazleak idaztea eta gorazarretxoak egitea bururatu zait. Bai, ezkutuan, ilunpean geratu diren idazleak aipatu behar ditut. Ez dira ez gutxi izan. Afizioa badago, beraz, eta baita ofizioa ikasteko gogoia ere...

...Ernest Hemmingway-ek Icebergaren Teoria zuen gogoko idazlearen eta idaztearen ofizioa esplikatzeko. Iceberg batean, itsaso gainetik, tontorra eta ezer gutxi gehiago antzeman daiteke, zazpirena besterik ez. Ezkutupean geratzen da ordea beste guztia. Hemmingway-ek zioen azaltzen ez denak duela indar gehien eta garrantzi handien idazterakoan, hots, iradokitzen dena, espreski adierazten ez dena dela benetan narrazio batean garrantzizkoa. Hau da, argien fokuetatik eta distiratik kanpo geratzen denak ere baduela pisua eta zeresana franko literaturaren munduan.

Liburu hau irakur dezanak jakin behar du hau aukera bat besterik ez dela, eta ez dela izan –onena agian, nork jakin; ez onena apika, nork esan seguru– eta Hemmingway-en Icebergaren Teoria aintzat hartuz, beste sei aukera (beste sei liburu) ezkutuan geratu direla eta, amaitzeko, balizko irakurle horri gomendatuko nioke –esku artean daukan liburu honekin gozatzeaz gain– saia dadila hor-hemenka aurkitzen datozen urteotan, ezkutupean gelditu diren idazle horiek eta sor ditzak izan baitaitezke dudarik gabe.



Irakaskuntza Ertainetako Urruzano Literatur Lehiaketa 1996

EK15020305



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

Salneurria: 500 liras

P O E S I A

LEIRE BILBAO

OLARZ ARANGUREN

LIERNI ASURABARRENA

AMAIA BIZKARGUENANA

LEIRE AURREKOETXEA

MIKEL AYLLON

MONICA ESTEVEZ

MIKEL AYLLON

AMAIA ARTOLAZABAL

MATXALEN ZABALJAUREGUI

...Fokuak gutxi batzuen, gaurkoan saritu eta irabazle suertatu diren aurpegien bila ari diren bitartean niri, gaurko honetan, argi distiratsu horietatik at geratu diren hainbeste eta hainbeste idazlez idaztea eta gorazarretxoa egitea bururatu zait. Bai, ezkutuan, ilunpean geratu diren idazleak aipatu behar ditut. Ez dira ez gutxi izan. Afizioa badago, beraz, eta baita ofizioa ikasteko gogoia ere...

...Ernest Hemmingway-ek Icebergaren Teoria zuen gogoko idazlearen eta idaztearen ofizioa esplikatzen. Iceberg batean, itsaso gainetik, tontorra eta ezer gutxi gehiago antzeman daiteke, zazpirena besterik ez. Ezkutupean geratzen da ordea beste guztia. Hemmingway-ek zioen azaltzen ez denak duela indar gehien eta garrantzi handien idazterakoan, hots, iradokitzen dena, espreski adierazten ez dena dela benetan narrazio batean garrantzizkoa. Hau da, argien fokuetatik eta distiratik kanpo geratzen denak ere baduela pisua eta zeresana franko literaturaren munduan.

Liburu hau irakur dezanak jakin behar du hau aukera bat besterik ez dela, eta ez dela izan –onena agian, nork jakin; ez onena apika, nork esan seguru– eta Hemmingway-en Icebergaren Teoria aintzat hartuz, beste sei aukera (beste sei liburu) ezkutuan geratu direla eta, amaitzeko, balizko irakurle horri gomendatuko nioke –esku artean daukan liburu honekin gozatzeaz gain– saia dadila hor-hemenka aurkitzen datozen urteotan, ezkutupean gelditu diren idazle horiek eta sor ditzak izan baitaitezke dudarik gabe.



FK15020305
Irakaskuntza Ertainetako Urruzano Literatur Lehiaketa 1996



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA